



**Emakume eta Gizonen  
Berdintasunaren  
Gaineko Masterra:  
Berdintasun Eragileak**

**Máster en Igualdad  
de Mujeres y Hombres:  
Agentes de Igualdad**

### **III. MODULUA: BERDINTASUNA EZARTZEKO METODOLOGIA**

**4. gaia:  
Ikerketa-metodologia feministak  
Irakasleak: Marta Luxán Serrano eta  
Jokin Azpiazu Carballo**



## Aurkibidea

---

### Edukien aurkibidea

<u>LABURPENA ETA HELBURUAK.....</u>	<u>3</u>
<u>1. SARRERA GISA.....</u>	<u>4</u>
<u>1.1. OHAR LABURRAK EPISTEMOLOGIA FEMINISTARI BURUZ..</u>	<u>4</u>
<u>1.2. GENERO-JOERAK IKERKUNTZAN.....</u>	<u>7</u>
<u>1.3 BA AL DAGO METODOLOGIA FEMINISTARIK?.....</u>	<u>10</u>
<u>1.4 PARTAIDETZAZKO IKERKETA-EKINTZARI BURUZKO OHARRAK.....</u>	<u>12</u>
<u>2. DATUAK EKOIZTEKO/BILTZEKO TEKNIKAK.....</u>	<u>17</u>
<u>2.1 GALDERA-SORTEN DISEINUARI BURUZKO OHARRAK.....</u>	<u>20</u>
<u>2.2 ELKARRIZKETAK.....</u>	<u>24</u>
<u>2.3 EZTABAIDA-TALDEAK.....</u>	<u>29</u>
<u>2.4 EKOIZPEN NARRATIBOAK.....</u>	<u>32</u>
<u>2.5 ETNOGRAFIA FEMINISTA ETA AUTOETNOGRAFIA.....</u>	<u>37</u>
<u>2.6 PHOTOVOICE-A.....</u>	<u>40</u>
<u>3. DATUAK AZTERTZEKO TEKNIKAK.....</u>	<u>42</u>
<u>3.1 DATU KUANTITATIBOEN USTIAPENA.....</u>	<u>44</u>
<u>3.2 DISKURTSOAREN ANALISI KRITIKOA IKUSPEGI FEMINISTATIK.....</u>	<u>50</u>
<u>3.3 EDUKIAREN ANALISIA.....</u>	<u>56</u>
<u>4. BIBLIOGRAFIA ETA WEB BALIABIDEAK</u>	
<u>Epistemologia eta ikerketa-metodologia feministei buruzko kontu orokorrak.....</u>	<u>59</u>
<u>Ikerketa-teknikak eta datuak sortzeko eta aztertzeko teknikak.....</u>	<u>60</u>

<a href="#">Adierazle-sistemei buruzko gidak eta proposamenak.....</a>	<a href="#">62</a>
<a href="#">Web baliabideak.....</a>	<a href="#">63</a>



## LABURPENA ETA HELBURUAK

Gaiaren helburu orokorra ikasleei ikerketa-metodologia feministari buruzko lehen zantzuak ematea da, bai eta datuak sortu eta/edo jasotzeko eta aztertzeko gehien erabiltzen diren tekniketako batzuen berri ematea ere.

Horretarako, batetik, epistemologo feministen proposamenak labur aipatuko ditugu; eta epistemologo horietako batzuek ikerketaren alorrean identifikatutako genero-joera nagusien berri ere emango dugu. Bigarrenik, hizpide izango dugu ikerketa-metodologia feministarik ba al dagoen (edo ez); eta eztabaida horretan gure jarrera zein den ere argituko dugu.

Hirugarrenik, datuak sortzeko/biltzeko zenbait teknikaren berri emango dugu. Zehazki, teknika hauek landuko ditugu: galdera-sorten diseinua, elkarrizketak, eztabaidataldeak, produkzio narratiboak, etnografia feminista eta autoetnografia eta photovoice-a. Azkenik, datuak aztertzeko zenbait teknikatan jarriko dugu arreta, hala nola datu kuantitatiboaren ustiaketan, diskurtsoaren azterketa kritikoan (ikus puntu feministatik) eta edukiaren azterketan.

Materiala antolatzeko ekoizpen-/bilketa-teknikak eta analisi-teknikak bereizi ditugun arren, bereizketa hori auzitan jarriko dugu testuan zehar.

Ez dugu testua ezin konta ahala erreferentzia bibliografikoz bete nahi izan. Hala ere, amaierako bibliografian txosten hau egiteko erabilitako testuak eta materialak aurkituko dituzue, bai eta proposatutako zenbait gaitan sakontzeko baliagarriak izango zaizkizuen beste batzuk ere.



## 1. SARRERA GISA

### 1.1. OHAR LABURRAK EPISTEMOLOGIA FEMINISTARI BURUZ

Zientzia, Teknologia eta Generoa lantzen zituen gaien aipatu bezala, “maskulinoaren eta objektiboaren arteko lotura, eta objektiboaren eta zientifikoaren artekoa, sinesmen bat, mito bat izan da historikoki, oraindik ere bizirik dirauena” (Fernández Victoria, 2016: 3). Alde horretatik, hamarkadak dira epistemologia feministako adituek hauek guztiak salatzen dituztela: ikerketen izaera androzentrikoa eta sexista, emakumeen esperientziek eta interesek jasan duten ikusezintasuna eta arretarik eza, femeninotzat jotako jakituria tradizionalak aintzat ez hartu izana eta ezagutzen ekoizpen-prozesuetan sortzen diren genero-desparekotasunak. Are gehiago, postulatu positibistak ere auzitan jarri dituzte epistemologo feministek; hala nola zientziaren neutraltasuna, objektibitatea, arrazionaltasuna eta unibertsaltasuna. Kritika horiek gure proposamen metodologikoaren oinarriak direnez, ezingo ditugu aipatu gabe utzi, baina lehen moduluan ideia horietako batzuk landu dituzuenez, ahaleginduko gara bai labur aritzen bai oraindik landu ez dituzuen alderdiak azpimarratzen.

Epistemologo feministen lehen baieztapenetako bat izan zen emakumeek oso presentzia mugatua izan zutela ezagutzaren ekoizpen-eremuetan, eta, era berean, haien noizbehinkako parte-hartzea ukatu edo ezkutatu egin dela aurkikuntzen egiletzaren aitopen-prozesuetan. Horiek horrela, zenbait aitzindarik emakume zientzialarien historia berreskuratzeko lan egin dute, ziur baitaude memoria zientifikoak historiaren gainerako esparruek adinako obskurantismoa jasan izan duenaz. Premisa hori oinarri hartuta, ahalegin handia egin zuten, eta egiten dute oraindik ere, emakumeak ezagutza sortzeko gaitasuna duten subjektutzat onartuak izan daitezen.

Izan ere, emakumeak egote hutsak ezagutzen ekoizpen-eremuak eraldatuko lituzkeela uste zuten feminista enpiristek eta emakumeak ere ikerketa-“subjektu” izatea aldarrikatzen zuten, horrela utziko baitzioten gizonen errealitatea ulertzeko eta definitzeko arau izateari. Ikertzaile horiek, zientzia heteropatriarkala aldatzeko beren ahaleginean, ez zituzten haren oinarriko postulatuak zalantzan gehiegi jarri eta ez

zioten utzi ebidentziak ezagutzen ekoizpen-prozesuaren funtsezko balioztat hartzeari. Geroago, *empirista tolesgabe* esan zitzaizen feminista horiei.

Beste epistemologo batzuek kritika sakonagoa egin zioten zientziaren androzentrismoari, kasu larrietan, gizateria osora orokortzera iritsi baitziren gizonezko subjektuekin baino (zuriak, noski) egin ez ziren esperimenduaren emaitzak. Kritika hori oinarri hartuta, emakumeak ikerketagai izan zitezkeen eskatu zuten feministek. Berehala, eskaera hori egiteaz gain, beste hauen garrantzia ere nabarmendu zuten: lehenik, emakumeen interesekoak diren gaiak ikergarriak direnen artean onartzearen garrantzia, eta bestetik, errealitatea aztertze eta ulertze genero-ikuspegia txertatzearen garrantzia. Eskaera horien arteko lehena ordura arte kontuan hartu ez ziren eremu eta errealitateak ezagutzeko behararen ondorioa izan zen (eta, besteak beste, etxeko indarkeria onartzea ahalbidetu zuen); bigarrena, berriz, gure gizarteko botere-harremanak ulertze bidea izan zen (adibidez, genero-indarkerien izaera estrukturala nabarmendu zuen). Pentsamolde horri jarraiki, emakumeek eta beste subjektu minorizatu batzuek posizio epistemiko pribilegiatua dute ikuspuntuaren teoriaren arabera, bazterretan kokatuta daudelako.

Posizio pribilegiatua diogunean, ez dugu hitzaren zentzu klasikoan esaten. Errealitatearen osagaiak bizi esperientzia subalternotik behatu eta kontatzeko aukeraz ari gara, esperientzia horrek begirada konplexuagoa ematen baitu pribilegio sozialetik lortu daitekeena baino.

Kritika epistemologiko feministek agerian jarri dute zientziaren neutraltasuna eta objektibotasuna falaziak baino ez direla, zientziak oinarri izan duen joera sexista ezkutatzeko balio izan dutenak, gaur egun ere ikerketa ugari ardatzen dituen joera sexista ezkutatzeko, hain zuzen. Hala ere, zenbait egile harago doaz: proiektu zientifikoaren erreforma batek ziur huts egingo lukeela eta postulatu heteropatriarkalak eta kolonialak guztiz dekonstruitzea beharrezkoa dela uste dute. Alde horretatik, feminista dekolonialek gogorarazten digute inork ez dituela ordezkatu behar edo inork ez duela beren ordezkari hitz egin behar, jakituria subalternoa aintzat hartu behar direla eta jakituria horiek ezagutzen ekoizpen-eremuetan beren lekua izateko oztopoak ezabatu behar direla. Izatez, nazioartean jasotako datuek agerian



jartzen dute etnia minorizatu ugaritako pertsonen antzeko diskriminazioak jasaten dituztela munduko hainbat lekutan. Gure testuinguru geografikoan halako estatistika eta analisirik ez badaukagu ere, nahikoa da edozein unibertsitatetara joatea eredu hori bera errepikatzen dela ikusteko.

Ikuspuntu horren ildo berean, ezagutza kokatuen eta partzialen epistemologiak azpimarratzen du emakumeek eta beste subjektu minorizatu batzuek leku handiagoa izan behar dutela ezagutzen ekoizpen-eremuetan, baina ez beren ezagutzaren murriztapenak txikiagoak direlako, baizik eta jakiturien produkzioaren oinarri behar lukeen debate kolektiboan beharrezko ahotsak direlako. Korronte horren arabera, ekoiztako ezagutzan beren jarrerak zer eragin duen aztertu behar dute emakumezko ikertzaileek, hala, difrakzio hori sustatzeko, eta partzialtasuna muga bat izan beharrean, aukeren biderkatze bat izan dadin. Gure egiten dugun ikuspuntu horrek zenbait antzekotasun ditu eszeptiko postmodernoen proposamenekin. Azken horiek praktika zientifiko heteropatriarkalak desartikulatzearen alde egiten dute, eta ezagutza nola sortzen dugun birpentsatu behar dela uste dute. Aurrerago, ikuspegi horren ezaugarri nagusiak lantzerantz itzuliko gara (2.4 atalean).

Hala ere, teoria postmodernoen interpretazio interesatu batek laxotasun teoriko eta metodologikoa ekarri du zenbait testuingurutan, “denak balio du” bat, praktika arrazistak justifikatzea ere ekarri duena, Mary Jaqui Alexander-ek eta Chandra Mohanty-k (2004) salatu duten eran. Haraway-ren (1988) hitzetan, arazo larri hori ekiditeko, ikertzaileek beren jardueraren erantzukizuna beren gain hartu behar dute; hots, onartu behar dute ezagutza sortzea beti dela ekintza politiko bat eta era kontzientean eta arduratsuan egin behar dela.

## **1.2. GENERO-JOERAK IKERKUNTZAN**



Agerikoa da zientzia positibistari eginiko kritika feministek ezagutzen ekoizpen-prozesuak definitzeko modua irauli dutela. Zenbait aitzindarik, Eveline Fox-ek (1991) kasu, ikerkuntza zientifikoan joera sexistak oso ugariak direla frogatu dute, bai eta zientziaren historia sexu- eta genero-metaforek ardaztu dutela ere. Nahasteko beldurrik gabe baieztatu dezakegu zientzia, eratu ere, ideario maskulinizatuen arabera eratu dela, eta, beraz, balio sexistak berresten dituela eta genero-harremanen ondorio diren desparekotasunak naturalizatzen dituela. Sandra Harding-ek esan bezala, “objektibotasuna eta subjektibotasuna; zientzialaria, dakien pertsonatzat, eta bere ikerketagaiak; arrazoimena eta emozioak; burua eta gorputza. Aurrez aurre jartzen diren elementu bikote horietan guztietan, lehen osagaia maskulinitasunarekin lotzen da eta azkena, feminitasunarekin” (Harding, Sandra, 1996).

Alde horretatik, argigarria da Margrit Eichler-en (1988; 1991) lana. Askotariko diziplina zientifikotan egindako hainbat ikerketa aztertu ondoren, sexismoaren zazpi adierazpen nagusi azaleratu ditu: androzentrismoa, gainorokortzea, genero-sorgortasuna, bi neurri desberdin erabiltzea, “bere sexuari dagokiona”, dikotomia sexuala eta familismoa. Azal ditzagun, labur, banan-banan<sup>1</sup>:

- 1) **Androzentrismoa.** Errealitatea esperientzia maskulinoen bidez eratzea da; hau da, subjektu sozialetzat gizonak baino ez hartzea. Androzentrismoak azaleratzeko hainbat modu ditu: ikuspuntu edo erreferentzia-marko maskulinoa, emakumeen ikusezintasuna, gizonezkoak subjektu aktibotzat eta emakumezkoak subjektu pasibotzat jotzea, ginopia edo emakumeen ikusezintasuna, misoginia edo emakumeak gorrotatzea, eta azken horiek errudun egitea, eta gizonezkoek emakumezkoak mendean har ditzaten defendatzea. Gure iritziz, proposamena zabaldu eta pertsona transexualen esperientzien ikusezintasuna ere androzentrismoaren adierazpentzat hartu behar litzateke.
- 2) **Gainorokortzea.** Erreferentzia-subjektutzat gizonezkoak baino izan ez dituzten ikerketetan jasotako emaitzak unibertsalizatzea da.

<sup>1</sup>Azalpen xehatuagoa eskuratzeko, kontsultatu Díaz Martínez, Capitolina eta Dema Moreno, Sandra (2013), 2. kapitulu. Material horretan oinarritu gara epigrafe hau egiteko.



- 3) **Genero-sorgortasuna.** Ikerketetan genero-aldagaiaren garrantzia kontuan ez izateari esaten zaio.
- 4) **Bi neurri desberdin erabiltzea.** Irizpide desberdinak erabiltzea da, sexu desberdinetan berdin-berdinak diren jarrerak edo egoerak aztertzeko, lantzeko, neurtzeko edo ebaluatzeko.
- 5) **“Bere sexuari dagokiona”.** Neurri desberdinak erabiltzeko modu bat da. Modu hori datza ziurtzat jotzean zenbait kontu, ekintza eta/edo jarrera sexu batentzat egokiagoak direla bestearentzat baino.
- 6) **Dikotomia sexuala.** Gizonezkoak eta emakumezkoak kategoria segregatutzat hartzea da; hots, batak bestearekin ia zerikusirik ez duten kategoriatzat. Gure iritziz, pertsona transgeneroen segregazioan mekanismo horiek zer eragin duten ere hausnartu behar da.
- 7) **Familismoa.** Familia (edo etxea) azterketa-unitatetzat hartzea da, haren barneko desberdintasunak eta desparekotasunak kontuan izan gabe.



### **1.3 BA AL DAGO METODOLOGIA FEMINISTARIK?**

Aipatu dugu ikerketa zientifikoan metodoek duten garrantzia. Zientziaren izaera androzentrikoa eta sexista dela medio, feminismoak bere metodologia propioa bilatzeari ekin dio. Baina gaur-gaurkoz konpondu ez den eztabaida bat dago gai horri buruz: batzuek berariazko ikerketa-metodo ez-sexistak garatzeko beharra azpimarratzen dute eta beste batzuek, aldiz, uste dute ikerketa-metodologia feministarik ez dagoela –eta ez litzatekeela positiboa izango halakorik egotea–. Beste egile batzuek bitarteko jarrera dute: zientzia tradizionalaren metodoak egokitu behar direla diote, joera sexistak agertu ez daitezzen, edo/eta uste dute ikerketa feminista baten bereizgarria marko teorikoa dela.

Gu ere bitarteko jarrera horren aldekoak gara eztabaida horri dagokionez. Abiapuntu gisa, feministatzat hartzen ditugu ikuspegi epistemologiko feministetan oinarritzen diren metodo eta teknika guztiak. Horrez gain, beste paradigma batzuei jarraiki garatutako teknikei erabilera feminista eman dakiekeela uste dugu, hala nola inkestei eta eztabaida-taldee. Hau da, ikertutako fenomeno baten genero-erlazioak argitzeko baliagarriak diren metodo eta teknikak erabiltzea defendatzen dugu, erlazio horiekin lotutako desparekotasunen berri eman eta horiek gainditzen laguntzen dutenak, metodo eta teknika horiek noiz eta nola garatu ziren kontuan izan gabe. Halaber, gogorazi nahi dugu metodologia feministak, beste edozein planteamendu kritiko feminista bezala, eratzen ari garen eraketa kolektiboa direla, ez modu absolutuan ebaluatu daitekeen etiketa bat.

Labur-labur, metodologia feministatzat hartuko genuke premisa hauetakoren bat betetzen duen edozein metodologia:

- 1) epistemologia feministak proposatutako kritikak bere egiten eta integratzen ditu,
- 2) teoria feministak begirada metodologikoaz hornitzen ditu,
- 3) kontuan hartzen ditu, besteak beste, alderdi hauek: subjektuaren eta objektuaren arteko erlazioa iraultzea, publikoa/pribatua dikotomia haustea, teoriaren eta

praktikaren arteko interdependentzia nabarmentzea, botere-harremanak badirela onartzea eta horiek eraldatzen ahalegintzea, ezagutzaren produkzio kolektiboaren alde egitea...



#### **1.4 PARTAIDETZAZKO IKERKETA-EKINTZARI BURUZKO OHARRAK**

Partaidetzazko Ikerketa-Ekintzari buruz (PIE) arituko gara hemen, eta ikerketa-jarduera feministen zenbait ekarpen azpimarratuko ditugu horretarako. Praktika horiei hainbat izen eman zaizkie, adibidez, “Partaidetzazko Ikerketa-Ekintza Feminista” edo “Ikuspegi Feministako Partaidetzazko Ikerketa-Ekintza”: nolana ere, hemendik aurrera PIEF esango diegu.

Zergatik jarri dugu PIEFa hemen eta ez tekniken atalean? Garrantzitsua delako argitzea PIEFa ez dela teknika bat, datuak sortzeko modu bat ez den heinean, edo ez, behintzat, hori soilik. PIEFa metodologia bat da, ikertzeko modu bat, eta haren irizpideak fase guztietan izan beharko ditugun kontuan, ez soilik datuak sortzeko unean. Alderdi hori hobeto argitzeko, esan daiteke PIEFak hainbat teknika erabil ditzakeela unean uneko beharren arabera. Jakina, zenbait teknika hurbilago daude PIEFaren irizpideetatik, baina horrek ez du esan nahi mota horretako ikerketa batean edozein teknika erabilgarria izango ez denik.

Beraz, esan bezala, PIEFak ikerketa-prozesu osoan aplikatu behar dugun ikusmoldea ematen digu. PIEFaren definizioa, definizio guztiak bezala, hurbilpen bat da, ez kategoria absolutu bat, zeinak, dakigunez, ez baititu PIEF izenak barne hartzen dituen ikerketa-jardunen konplexutasun guztia adierazten. Hala ere, komeni da PIEFaren antzekoak izan daitezkeen arren, ezinbestean halakotzat hartuko ez ditugun beste ikerketa-mota batzuei buruzko zenbait argibide ematea.

Hasteko, ohikoa da PIEFa eta ikerketa komunitarioa nahastea. Izatez, PIEFa izan daiteke ikerketa komunitario bat, baina ez du ezinbestean beti hala izan behar. Ikerketa komunitarioaren oinarria, eskuarki, komunitate definitu bat izaten da; hobeki esateko, halakotzat auto-definitzen den komunitate bat (noski, teorikoki eta errepresentazioaren aldetik, konplexutasun handiak ditu horrek). Komunitate horretan ikerketa baten beharra sortzen da, neurri handiagoan edo txikiagoan, komunitatean bertan eragitera bideratuta egongo dena. Ikerketaren helburuak, izatez, komunitatea indartzearekin edo



birpentsatzearekin zerikusia izan dezake. PIEFa, ordea, komunitate auto-definitu baten eremuan egin ahal izateaz gain, hasiera batean komunitate kontzientziarik ez duen komunitate batean ere egin daiteke (adibidez, hiriaren eremu jakin batean bizi den jendea), azkenean, komunitate kontzientzia hartu dezakeena (edo ez).

Ohikoa da, baita ere, zenbait ikerketetan, komunitateren batean ekintzak egitea, baina ikerketa horiek ez dira ezinbestean partaidetzazkotzat jo behar. Maiz, adibidez, enpresa-munduko zenbait ikerketetan, zenbait ekintza jakin erabiltzen dira, esate baterako, enpresan lan egiten duten pertsonen hari buruz duten pertzepzioa aldatzeko, baina pertsona horiek ez dute ikerketaren diseinuan eta ezarpenean parte hartzen.

PIEFa, zalantzarik gabe, ikerketara hurbiltzeko modu bat da, lau sigla dituen, lauak problematikoak, eta arreta eta kontu handiz jardutea eskatzen duena, bestela espero/nahi genuenaren aurkakoa egiten amai baitezakegu. PIEF akronimoaren siglak banan-banan azalduko ditugu haien ezaugarri nagusiak aipatu eta ikuspegi feministatik auzitan nola jarri diren argitu ahal izateko.

## **Ikerketa.**

Egia esan, Ikerketa-Ekintzari buruz aritu behar genuke hemen, PIEFean batuta ageri diren bi hitz adierazten dituen akronimoa. Ikerketa-mota honek irakurketa bikoitza du abiapuntutzat: batetik, esango dugu, ikerketaren helburuak ez direla ezagutzak sortzera mugatzen (edo ez dutela zertan mugatu); eta bigarrik, esango dugu, izatez, ezagutzen ekoizpen orok berekin ekarriko duela beti nolabaiteko eragina, ekintzaren bat, azken finean. Are gehiago, bertan pertsonen edo gizarte-taldeek parte hartzen badute. Ezin dugu pentsatu gizarte-ekintzaren eremutik drone-eltxo kameradunak eta mikrofonodunak bagina bezala pasako garela, eta gure presentzia ez dela hautemango. Ikerketa baten testuinguruan egiten dugun guztiak eragina izango du ikertzen ditugun pertsonengan eta taldeengan. Beraz, zergatik ez serio hartu eragin hori, eta zergatik ez hartu, ez ikerketaren albo-ondoriotzat, baizik eta pentsatu, problematizatu eta ikertzearen/egitearen bidez lortu dezakegun zerbaiten eran?



## Ekintza

Ikerketetako ekintza aipatutako ikerketa-ekintza pare banaezinaren testuinguruan txertatzeak zerikusi handia du komunitateei eta gizarte-taldeei dagokienez akademiak daraman dinamika estruktibista zalantzan jartzearekin. Maizegi, gizarte-zientzietatik “interesgarrizat” edo “ikergarrizat” hartzen dugun gizarte-talde batera edo bestera hurbiltzen gara eta komunitate horiek ikertzeko asmoz, ezagutza-mota bat praktikatzan dugu. Ezagutzen duenaren eta ezagutua denaren arteko banaketa hori oso zalantzan jarri dute epistemologia feministek, bai eta gizarte-mugimenduek eta hainbat kolektibok ere.

Idea horretatik abiatuta, esparru akademikotik haragoko emaitzak eta/edo eragina izango duen jarduera-motatzat proposatzen da ikerketa. Ikertzen ditugun komunitateek eta taldeek azken txosten bat edo gehienetan ezertarako balio ez dien hizkeran idatzitako artikulu bat baino gehiago jaso behar dute. Izatez, ikertzen dutenen eta ikertuak direnen arteko elkartruke-harreman bat ezartzeaz harago, PIEFak ikerketan elkarlanean aritzea proposatzen du. Hori dela eta, ez dugu esaten nor ikertzen dugun, norekin batera ikertzen dugun baizik. Ikerketaren eremuan, beraz, hartan engaiatutako taldeen eta pertsonen nahiei eta beharrei erantzuteko “ekintza”, emaitza eta ondorio espezifikoak eratzten dira. PIEFak behar horiek berdintasunezko gizarte-aldaketaren ikuspuntutik mahaigaineratzen ditu.

## Partaidetzazkoa

Ikerketak partaidetzazkoa izan behar duela esan nahi dugu, eta horrek ordezkaritza- eta partaidetza-moduak birplanteatzera behartzen gaitu. Pertsonak, taldeak edo kolektiboak ez dira parte hartzera mugatu behar, erabakiak hartzeko eta ikerketa-prozesuko etapa guztiak prestatzeko aukera izan behar dute; hots, helburuak, epeak, ekintza-motak eta ikerketak sortuko dituen produktuak prestatzeko aukera. Mekanismo zintzoak eta eraginkorrak eskatzen ditu horrek, eta gure aukerei eta mugei dagokienez errealistak izatea. Jakin behar dugu PIEFean kontua ez dela beti “dena edo



ezer ez” lortzea. Oso ohikoa da parte hartzen dugun ikerketetan, maiz, parte-hartzaile guztien beharrak eta helburuak aseko dituen diseinu bat ezin lortzea. Hala ere, horrek ez du esan nahi ikerketa % 100 partaidetzazkoa izateko baldintza guztiak ez baldin badaude, partaidetza guztiz baztertu behar dugunik. Gure esku dago diseinu metodologiko irudimentsuak, zintzoak eta konprometituak eratzea, askotariko errealitateetara egokitzeko.

## Feminista

Zergatik zehaztu PIE bat feminista dela edo hala izatea nahi dugula? Batetik, agerikoa da, maila teorikoan eta praktikoan, pentsamendu eta ekintza feministak aurretik aipatutako elementu guztiak jarri dituela auzitan. Epistemologo feministek zalantzan jarri dute objektuaren eta subjektuaren banaketa, eta komunitatearen ideia identitateari eta subjektioari buruzko eztabaida feministen erdigunean jarri da, bai eta interseksionalitateari buruzkoen erdigunean ere. Era berean, bai ekintzaren ideia eta hark hizkuntzarekin eta hitzarekin duen lotura bai ekintza kolektiboaren ideia gai nagusiak izan dira kritika feministan, eta partaidetza ere auzitan jarri da maiz; izan ere, teorian praktika oso progresista izanik ere, gehiegi ardaztu da herritartasun androzentrikoan eta eurozentrikoan. Bestetik, horri eransten badiogu genero-eremuetatik datozen botere- eta desparekotasun-kontuekiko interesa, eta PIE ikerketa ugaritan ez direla kontuan izan aipatutako ekarpenak, PIEFak arrazoi asko ditu laugarren letra hori eransteko.



## 2. DATUAK EKOIZTEKO/BILTZEKO TEKNIKAK

Datuen ekoizpena diogu, gure ustez, erabiltzen dugun informazioa ez delako hura jaso dugun moduarekiko independentea; izan ere, aukeratutako teknikak eta kasuan kasuko haren garapenak baldintzatzen dute zer datu jasoko ditugun (eta zer datu ez) eta horiek zer motatakoak izango diren. Eta hala gertatzen da bai datu-iturri kuantitatiboak edo kualitatiboak erabiltzen ditugunean bai bigarren mailako datuak edo lehen mailakoak erabiltzen ditugunean. Izatez, datu-iturriak kamera baten objektiboarekin alderatu ditzakegu: haren ezaugarrien arabera eta hura erabiltzeko moduaren arabera, irudi batzuk edo besteak lortuko ditugu.

Horiek horrela, adibidez, elkarrizketekin lanean ari bagara, diseinatzen dugun gidoiak baldintzatuko du, neurri handi batean, zer informazio jasoko dugun. Inkestak erabiltzen baditugu, bai galderak egiteko moduak bai erantzunetan jasotzen diren kategoriek zedarrituko dute zer informazio-motarekin lan egin ahal izango dugun: “nora eta nola begiratuko dugun” aukeratze hutsa jasoko ditugun datuetan eragina izango duen erabakia da.

Garrantzitsua da, izan ere, datuak nola eratu diren jakitea, bai eta datuak ikertutako fenomenoaren zer definiziotan oinarritzen diren, zer alderdi hartzen dituzten kontuan, zer unetan jasoak izan ziren... jakitea ere. Eta garrantzitsua da hori guztia, geuk jakiteaz gain, argi eta garbi adieraztea, jakitera ematea. Beraz, gure interesekoa den gairen bati buruzko bibliografia eta ikerketak bilatzen ditugunean, oso garrantzitsua da arretaz begiratzea datuak zer definiziotan oinarrituta eratu diren: definizio horiek esparru teorikoan eta metodologiaren diseinuan jaso ohi dira. Bestalde, esan bezala, behar-beharrezkoa da kontu horiek gure ikerketetan esplizitatzea.

Sarrera honetan, garrantzitsua iruditzen zaigu beste kontu bat ere argitzea; metodologia feministen eta beste metodologia kritiko batzuen esparruan, zenbait teknikak datuak sortzearen eta horiek aztertzearen arteko dikotomia gainditu dute. Tradizionalki guztiz bereizitako bi fasetzat hartzen ziren; izatez, subjektu desberdinei zegozkienak (datuak pertsona parte-hartzaile guztiekin sortzen dira, baina ikertzen duten pertsonak aztertzen dituzte). Datuak ekoizteko zenbait teknikari buruz ondoren





emango ditugun azalpenetan, ikusiko duzue diseinu metodologikoa egitean parte-hartzaileei leku egin beharko zaiela datuen interpretazioan berean.

Horrez gain, ezin dugu aipatu gabe utzi teknika kuantitatiboen ustezko androzentrismoari buruzko eztabaida, ez eta, *per se* feministagoa delakoan, zenbait ikertzaile feministak metodologia kualitatiboaren alde egin duen apustu argia ere. Berriri azpimarratu nahi dugu, gure iritziz, teknika guztiak aplikatu daitezkeela ikuspegi feminista batetik eta, beraz, eztabaida horrek, antzua izateaz gain, berriz ere pentsamendu dual eta sinplifikatzaile batera garamatzala, teknika kualitatiboak subertsiboak direla eta kuantitatiboak boterearen zerbitzura daudela dioena. Ez dugu iritzi horrekin bat egiten, baieztapen horretatik urruntzen gaituzten hainbat adibide baititugu. Gaur egun, adibidez, teknika kualitatiboak erabiltzen dira (bat ere subertsiboak ez diren) merkatu-azterketetan, eta Denbora Aurrekontuen Inkesten ustiapenak ekarpen handiak egin dizkio genero-desparekotasunen bisibilizazioari<sup>2</sup>.

Ondoren, labur, zenbait ikerketa-teknika azalduko ditugu. Jakina, badira beste batzuk ere, baina ezin ditugu denak hona ekarri. Beraz, aukeraketa bat aurkeztea erabaki dugu, bi irizpide hauek oinarri hartuta: teknikaren aplikazioak zer hedadura duen eta epistemologia feministarekin zer lotura duen. Material honen dimentsioa dela eta, testuak laburrak dira, baina tekniketako bakoitzaren alderdi teorikoetan eta praktikoetan sakondu nahi duenarentzat oinarrizko zenbait erreferentzia erantsi zaizkie.

<sup>2</sup>Eztabaida horretan sakontzeko Westmarlan, Nicole (2001) irakurtzea aholkatzen dugu (ikusi bibliografia).



## **2.1 GALDERA-SORTEN DISEINUARI BURUZKO OHARRAK**

Inkestak dira ikerketa-teknika kuantitatibo nagusia. Gizarte-zientzietan, bai eta estatistika ofizialetan ere, asko erabilitako teknika izan da eta da gaur egun ere. Lerro hauen helburua teknika horren erabilera eta oinarri dituen galdera-sorten diseinua ikuspegi feministatik birpentsatzea da.

Lagin baten bidez, biztanle-talde baten osotasunari buruzko informazioa lortu dezakegu. Informazio horrek aurretik zehaztutako errore-marjinak izango ditu. Ideia horretatik abiatuta eratzen dira inkestak, estatistika matematikoaren printzipioetan oinarrituta. Hau da, gure intereseko pertsona-talde (biztanleria) bati buruzko informazio fidagarria jaso daiteke talde horretako zenbait pertsona aukeratu (lagina) eta galderak haiei soilik eginda. Jakina, aukeraketa hori gero analisisan erabiliko ditugun aldagaiak kontuan hartuta diseinatu behar da, lagina adierazgarria izango dela bermatzeko. Esaterako, laginean nahikoa emakume daudela eta 16 urtetik 30 urtera artekoak direla ziurtatu behar dugu, erantzunak emakume gazteen biztanleria-talde osora orokortu ahal izateko. Ikus dezakezuenetz, generoa kontuan izan behar den funtsezko aldagaia da erabiliko dugun lagina diseinatzeko. Baina ez da elementu garrantzitsu bakarra.

Dakizuenetz, hainbat inkesta-mota daude: aurrez aurreko inkestak, telefono bidezkoak, inkesta elektronikoak eta, gero eta gutxiago, posta bidezkoak. Gehienetan, eskura ditugun baliabideen arabera erabakitzen da zer inkesta-mota erabili. Dena den, kontuan izan behar dugu aukeratutako inkesta-motak baldintzatuko duela, hein batean, zer profil soziodemografikotara iritsi ahal izango dugun. Horiek horrela, adibidez, telefono finkoetara deituz eginiko telefono-inkesta baten bidez, ziur asko, emakume adindu askoren erantzunak jasoko ditugu, beste kolektibo batzuk baino denbora gehiagoz egoten baitira etxean. Profilak beste batzuk izango dira inkesta telefono mugikorretara deituz edo online galdera-sorta baten bidez egiten bada. Beraz, zer profiletara iritsiko garen zedarrizten du erabiltzen dugun inkesta-motak eta generoa da, hain zuzen, mugatutako profil horien arteko aldagai garrantzizkoetako bat. Inkestak erabiltzen baditugu aintzat hartu beharko dugu hori ere.



Hala ere, zalantzarik gabe, galdera-sorten diseinua da gure erronka nagusia. Begien bistakoa den arren, lehenik eta behin azpimarratu nahi dugu galdera-sorten diseinuan genero-ikuspegia (are gehiago begirada feminista) txertatzea ez dela mugatzen haietan sexuaren aldagaia edo generoaren pertzepzioa sartzera. Horiek horrela, oso garrantzitsua da galdera nori egiten diogun eta nola egiten dugun kontuan hartzea; galderaren ikuspuntuak, gure kameraren objektiboak, jaso ahal izango dugun erantzun-mota mugatuko baitu. Hona hemen zenbait adibide.

- 1) **Nori egin zaizkio galderak, eta nori ez?** Galderak biztanleriaren sektore jakin bati baino egiten ez badizkiogu, ez dugu gainerako pertsoneri buruzko informaziorik izango eta, beraz, aztertu nahi dugun fenomenoaren zati bat baino ez da agertuko gure argazkian. Horren adibide dira, 1991. urtearen aurretik, Espainiako estatuko erroldetan ugalkortasunari buruz (zenbat haur eduki diren) egiten ziren galderak. Errolda horietan, galderak ez zitzairen emakume ezkondueri baino egiten. Ondorioz, badakigun arren bazirela guraso izandako gizon ezkondu zein ezkongabeak eta emakume ezkongabeak, ezin dugu informazio hori errolden bidez jaso: hau da, ez dakigu ezer emakumeen ezkontzaz kanpoko ugalkortasunari buruz, ez eta, orokorrean, gizonezkoen ugalkortasunari buruz ere. Kasu horrek argi erakusten du kontu soziopolitikoek galdera-sorten diseinuan eragina izaten dutela (galdera horren diseinua ezkontzaz kanpoko ugalkortasuna zigortzen zuen erregimen frankistaren herentzia da) eta diseinu horrek zenbait gizarte-irajainario eratzen eta iraunarazten dituela (emakumeak dira ugalkortasunaren arduradunak).
- 2) **Zer erantzun-aukera aurreikusten dira?** Jardunbide egokien adibide argigarria da ondorengo hau. EAEko Mugikortasun Inkestan (2011)<sup>3</sup>, 20. galderari (*Zergatik ez zinen atera?*) erantzuteko aukeren artean, *Etxea edo familia zaindu* erantzuna zegoen. Inkestaren aurreko edizioetan ez zen kategoria hori jaso, eta ondorioz, ez zegoen jakiterik aurreko egunean zenbat pertsona ez ziren etxetik atera hura eta/edo familia zaintzen aritu zirelako, ez eta pertsona horiek zein ziren, zer ezaugarri zituzten ere. Oso adibide zehatza da

<sup>3</sup>Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila izandakoak egindako inkesta bat da. Marije Apodaka, master honetako irakaslea, sail horretako berdintasun-teknikaria izan zen.

baina, gure iritziz, ezin hobeki erakusten du datuak eratu egiten direla eta genero-ikuspuntua estatistika-iturrietan txertatzea informazioa sexuen arabera banatzea baino zerbaite gehiago dela.

## 1. irudia Zergatik ez zinen atera? galderarentzat erantzun-kategoriak

20
<b>ZERGATIK EZ ZINEN ATERA?</b>
<p>A. Ez zenuen etxetik atera nahi ..... <input type="checkbox"/> 91</p> <p>B. Eguraldiari dagozkion arrazoiak ..... <input type="checkbox"/> 92</p> <p>C. Etxean ikasi edo lan egin zenuen..... <input type="checkbox"/> 93</p> <p>D. Aldi baterako gaixotasuna ..... <input type="checkbox"/> 94</p> <p>E. Gaixotasun iraunkorra..... <input type="checkbox"/> 95</p> <p>F. Etxea edo familia zaindu ..... <input type="checkbox"/> 96</p> <p>G. Besteak..... <input type="checkbox"/> 97</p> <p>[.....]</p>

Iturria: EAEko mugikortasunari buruzko inkesta (2011). Eusko Jaurlaritzak.

- 3) **Nola definitzen dira kontzeptuak?** Auzi horren adibide argia da lanaren definizioa. Zeri esango diogu lana? Norberaren gaineko edo besteren konturako soldatako langileei? Edo gure definizioan kontuan izango ditugu etxeko lanak, etxeko pertsonen zainketa, lan profesionala eta prestakuntza-lana, bai eta lan boluntarioa ere?<sup>4</sup> Definizio bat edo bestea aukeratzeak ez du galdeketaren diseinua soilik baldintzatzen, baizik eta ikerketa osoaren emaitzak. Horrez gain, kontzeptu baten definizioen xehetasun-mailak (edo jasotzen diren kategoriek), kontzeptu horri zer garrantzi ematen zaion adierazten du. Lanaren adibidera joko dugu berriz ere datu kuantitatiboan azterketari buruz hitz egiten dugunean.

Kontu horietan sakontzeko, Luxán, Marta et alii. (2009) bideoa ikustea aholkatzen dugu. [“¿Qué nos oculta el velo estadístico? Reflexión feminista en torno al diseño y la](#)

<sup>4</sup>Gutzizko Lan Kargari Sara Morenok eta Vicent Borràsek (2013) eman dioten definizioa da hori. Euskal Autonomia Erkidegoan nola aplikatu den jakiteko, kontsultatu Sagastizabal, Marina eta Luxán, Marta (2016).

[explotación de las fuentes de datos sociales](#)". Bilduma: Ikerketa Feministarako Metodologiari buruzko diziplinarteko mintegia (SIMReF).



## **2.2 ELKARRIZKETAK**

Elkarrizketaren teknika asko erabiltzen da gizarte-ikerketetan, alor ugarian eta hainbat modutan. Garrantzitsua da, beraz, elkarrizketei ekiteko zer modu dauden aipatzea eta, gure ikerketen beharren arabera, zein erabiltzea komeni zaigun pentsatzea.

Askotariko aukera horiei ekin aurretik (batzuk baino ez ditugu aipatuko, eta horiek ere modu nahiko azalekoan), komeni da pare bat kontu argitzea elkarrizketak eta eztabaida-taldeak erabiltzeari buruz.

Maiz, ekuazio azkar bat egin eta elkarrizketa, datuen ekoizpen kualitatiboa izanik, printzipio feministekin lotzen da. Azaldu dugu lehenago ere ez dugula uste gizarte-errealitatera hurbiltzeko modu kualitatibo-ulerkorrek berez hobeak, okerragoak, doiagoak edo feministagoak direnik hurbilpen kuantitatiboak baino, eta hori, banaketa hori oraindik baliagarria baldin bazaigu. Garrantzitsua da esatea, hurbilpen kualitatiboek analisiak egiteko modu bat proposatzen dutela, eta batez ere, fokua beste kontu batzuetan jartzea, analisi kuantitatiboak erabilia fokuz kanpo geratzen direnak. Ikuspegi ulerkorrek, adibidez, esperientziaren noziora garamatza, ikuspuntu feministak eztabaidan jarri duen nozioa. Esperientzia, bizipena eta haragitzea zientziak alde batera utzi izan dituen kontuak dira, objektibotasun gutxi dutela eta ulertezinak direla uste izan delako. Eta, kasualitatez, femeninotasunarekin lotu izan diren kontzeptuak dira. Beraz, garrantzitsua da esperientzien eta bizipenen ikerketak berreskuratzea, zientziaren eredu androzentrikoari aurre egiteko modu bat baita, bai gutxienez arretaguneari dagokionez.

Hala ere, horrek ez du esan nahi esperientziei buruz ikertzeak edo pertsonok mundu soziala nola bizi eta barneratzen dugun ikertzeak ordena hori iraultzea dakarrenik. Datuak ekoizteko eta aztertzeiko teknika kualitatiboak maiz erabiltzen dira proposamen positibistetan (pertsonak beren baitan ezkututzen duten Egia zein den jakiteko, elkarrizketetan azaleratzen dena), feminismotik gutxi duten helburuekin (adibidez,



eztabaida-taldeak eta elkarrizketak oso ohikoak dira marketin- eta merkatu-azterketetan, biztanleria kategorizatu nahi dutenak, produktuak beren neurria sortzeko). Izatez, ohikoa izan da, “bira kualitatiboa” gizarte-zientzietan erabakigarria izan zen garaian bereziki (hirurogeiko eta hirurogeita hamarreko hamarkadetan), gizarte-zientzialariek teknika kualitatiboen alde egitea, zenbakarriak ez izan arren, objektiboak eta objektibagarriak direla azpimarratuta.

Beraz, hobe da elkarrizketak eta eztabaida-taldeak bestela ikusiko ez genituzkeen gizarte-errealitatearen beste alderdi batzuetara iristeko teknikatzat hartzea. Beste ezagutza-helburu batzuekin dute zerikusia, eta helburu horiek ez dira ezinbestean deskribatzaileak/zenbakarriak izango. Baina ez dugu hori nahastu behar hobeak direla edo ikertzeko modu feministago edo berdinzaleagoekin lotuago daudela pentsatzearekin. Hori hala izan dadin, beste edozein teknikarekin bezala, ikusi beharko dugu teknika nola garatzen den, zer suposiziotatik abiatzen garen, teknika nola aplikatzen dugun eta zein diren auzitan jarri beharreko elementuak.

Horiek guztiak argituta, gure ikerketa-lanetan erabil ditzakegun zenbait elkarrizketa-mota zerrendatuko ditugu orain, labur eta era irekian.

**Elkarrizketa sakona.** Elkarrizketa-mota hau banaka egiten zaio pertsona bakoitzari. Helburua datuak sortzea da, ikertzen ari garen fenomenoaren edo kontuen alderdi ulergarriez pentsatu ahal izateko. Alderdi ulergarri diogunean, gizarte-errealitatea deskribatzetik harago, haren atzean dauden arrazoi eta elementuak ulertzeko edo horiei buruzko irakurketak proposatzeko zantzuak ematen dizkiguten elementuez ari gara. Beraz, galdera ez da errealitatea zein den, baizik eta nola eta zergatik gertatzen den gertatzen dena. Elkarrizketa sakona hainbat modutan antolatu daiteke:

- Elkarrizketa-gidoi egituratu baten bidez: galderak aurretik idatzita daude eta ordena espezifiko bati jarraitzen diote. Galderen oinarrian gure ikerketa-galderak eta hipotesiak (baldin badaude) egoten dira eta galdera horiek, halaber, eratu ditugun kategorizazioak eta adierazleak islatzen dituzte, hala



erabakitzen baldin badugu. Eskuarki, gaika antolatzen dira galderak, eta elkarrizketa arina izan dadin egoki deritzogun ordenari jarraitzen diote. Normalean, parte-hartzaileen erantzunak alderatu nahi baldin baditugu erabiltzen dugu gidoi itxi bat. Horretarako, nahitaezkoa da pertsona guztiek galdera berberei erantzutea. Zenbait egileren arabera, are gehiago, galdera berberak ordena desberdinean eginda ere arriskuan jartzen da elkarrizketen alderagarritasuna. Hala ere, gidoi itxiak erabiltzen dituzten ikertzaile guztiek ez dute arrazoi horiengatik egiten.

- Gidoi erdiegituratu bidez: elkarrizketan zenbait gairi buruz aritu nahi dugu, baina, hala ere, ez dugu eragotziko elkarrizketa egin ahala gidoia aldatzen joan dadin. Elkarrizketatzen ari garen pertsonak gaia arlo batetik bestera “eramaten” badu, ez dugu kontatzen ari dena etengo: elkarrizketatu baino, harekin hizketan arituko gara eta, horrela, galderen ordena, galdera horiek egiteko modua... aldatu ahal izango ditugu. Gidoi erdiegituratu elkarrizketa egin ahala gidoia aldatzeko aukera ematen digute, eta, hala, galdera berriak proposa ditzakegu parte-hartzaileak mahaigaineratzen joan diren gaiak oinarri hartuta. Hala eginez gero, kontuz ibili beharko dugu datuen interpretazio konparatiboa egin nahi badugu; izan ere, besteak beste, elkarrizketatutako pertsona guztiek ez baitiete galdera berberei, are gai berberei, erantzun.
- Galdera bakarreko elkarrizketa irekia: elkarrizketa-mota horretan elkarrizketa-gidoi bat egin beharrean galdera bat (edo bi) prestatuko ditugu, oso irekiak: lantzen ari garen gaiaren hainbat alderdiri buruzko erantzunak jaso ahal izateko bezain zabala izan beharko du. Esaterako, “Zer esperientzia duzu Gizarte Zerbitzuekin?” galdera egin dezakegu, eta ikerketa hortik abiatu. Elkarrizketa-mota hau zundaketatzat erabili ohi da, eta, zenbaitetan, erantzunak oinarri hartuta gidoi egituratu bat edo erdiegituratu bat egiteko erabiltzen da. Aurreko adibideari jarraiki, galdera ireki hori Gizarte Zerbitzuen bizpahiru erabiltzailerik egin diezaiekegu, haien erantzunetatik abiatuta zenbait gai identifikatzeko: gizarte-laguntzaileekin tratua, estigma sentazioa, hizkuntza-, adin-, genero-,



jatorri-... kontuak eta abar. Gero, gai-ardatz horiek baliagarriak izango zaizkigu gidoi bat egiteko. Gidoi horretan, garrantzitsuak iruditzen zaizkigun kontu gehiago sar ditzakegu, hasierako elkarrizketa irekian azaldu ez arren, gure ikerketa-galderen artean daudenak edo aztertutako gaiari buruzko literaturan ohikoak direnak.

**Bizi-historiak.** Elkarrizketa-mota hau, berez, ez da soilik elkarrizketak bideratzeko modu bat, metodologia bat baizik. Esperientzia, memoria eta bizi-zikloaren narratiba zer diren interpretatzeko bere printzipio propioak ditu. Hala ere, hemen aipatzea interesgarria iruditu zaigu. Elkarrizketa-mota hau historiaren alorrean garatu da bereziki, eta haren bidez parte-hartzaile bakoitzaren bizi-kontakizuna eratzen ahalegintzen gara. Orokorrean, gidoi erdiegituratu bat eramango dugu elkarrizketara, edo zenbait gai. . Hala ere, garrantzitsua da parte-hartzaileari haren historia kontatzen uztea, horrela, bila genbiltzanaren kontakizunaz gainera, elkarrizketatuak berak garrantzitsutzat jotzen duena ere jaso dezagun. Izatez, bi kontakizunak jasotzeak pertsonak bizi edo zuenari buruzko zantzuak emateaz gain, bereiziki, bizitakoa elkarrizketatuaren memorian nola gorde den eta haren identitatearekin zer lotura duen ere adieraziko digu. Bizi-historiek, orokorrean, elkarrizketatuarekin lan-saio bat baino gehiago egitea eskatzen dute eta, beraz, eskuarki, bizi-historien kopurua txikia izaten da ikerketetan. Garrantzitsua da gogoan izatea bizi-historiek ez dizkigutela egitateei buruzko datu objektiboak ematen, baizik eta pertsonak nola bizi eta interpretatu dituzten esaten digutela. Elkarrizketak beti iraganeko kontuei buruzkoak direnez, gaurko gizartetik oroitzapenak nola ulertzen, hautematen eta bizitzen diren ulertzen laguntzen digute, zenbait pertsonaren edo pertsona baten biografiaren kontakizuna oinarri hartuta.

**Objektuetan oinarritutako elkarrizketak.** Galderak erabili beharrean, esanguratsuak iruditzen zaizkigun objektuak, irudikapen artistikoak edo beste mota batekoak erabil ditzakegu elkarrizketak (edo horien zati bat) egiteko. Horretarako, ziur egon behar dugu erabilitako objektuak edo irudikapenak iruzkinen bat edo erantzunen



bat sortzeko bezain esanguratsuak direla. Zenbait egileren ustez, galdera egitea errazten du teknika honek, formulazioaren faktorea bera leuntzen duelako.

**Eztabaida-taldeak.** Elkarrizketa mota horretan pertsona bat baino gehiago biltzen dugu leku berean, eztabaida bat eragiteko. Alde horretatik, eztabaida-taldeak ez dira, zehazki, ohiko elkarrizketak. Horiek horrela, eta teknika oso erabilia eta garrantzitsua denez, epigrafe oso bat erabiliko dugu hura azaltzeko.



### **2.3 EZTABAIDA-TALDEAK**

Zergatik bereizi eztabaida-taldeak eta elkarrizketak? Azken finean, bi tekniketan gauza berarekin lan egiten da: hizketarekin. Eztabaida-taldeen helburua ez delako esperientziak edo bizipenak jasotzea, baizik eta gai jakin bati buruzko gizarte-diskurtsoak. Hau da, eztabaida-taldeen bidez, gizartean zabaldua dauden diskurtsoak azaleratzen ahalegintzen gara, pertsona bakoitzaren subjektibotasunaren ondorio ez direnak: indibiduen kanpokoak dira, beren baitan ere egoteaz gain.

Manuel Montañes Serranoren (2010, 2) hitzetan, “Eztabaida-taldea esaten zaion ikerketa-teknika/-praktikaren bidez, talde-bilera gutxi batzuk eginda, beharrezko lehengai diskurtsiboa lortuko dugu, aztertu ondoren, bi kontu hauen berri emango diguna: irudikapen eta irudi kolektiboen berri eta ikergai dugun adierazle edo/eta arazo jakin baten inguruan antolatzen diren talde-egituren berri”.

Alde horretatik, oso garrantzitsua da talde-alderdia, izan ere, taldean islatuko dira bai egitura-mailen arteko eta gizarte-praktiken eta -diskurtsoen arteko lotura bai diskurtsoen beren gizarte-alderdia. Bi-biak kolektiboki sortzen, transmititzen eta eraldatzen dira, interakzio komunikazionalaren bidez.

Horiek horrela, eztabaida-taldeak ezaugarri hauek dituela esan dezakegu:

- zenbait gizarte-maila, edo horietako bat, ordezkatzen duen erreferentzia-talde txikia da,
- talde artifizial eta esperimentalak da, egokiera jakin baterako eratua eta saioa amaitutakoan desagertuko dena,
- talde horrek bi ezaugarri-mota izango ditu: oinarritzko gizarte-talde batenak (bilera eta elkarrizketa plazertzat hartzen ditu) eta lan-talde batenak (egiteko zeregin bat ematen zaio).

Eztabaida-taldeak 5etik 10era parte-hartzailez osatuta egon ohi dira, nahiz zenbait egilek talde txikiagoak egiteko aukera proposatzen duten, hiruzpalau pertsonakoak.



Gidatuko dituen pertsonaren lana (tradizionalki tutore esan zaio pertsona horri) funtsezkoa da. Pertsona horrek saioa hasten du, eztabaidagaia proposatzen du eta eztabaida dinamizatzen du; gainera, taldeko kide guzti-guztiek parte har dezaten saiatzen da. Eztabaida-taldean iraupena, eskuarki, 6otik 12ora minutukoa izaten da, baina badira “irauten luzeko taldeak” ere (lau ordu edo gehiago irauten dute).

Elkarrizketetan bezala, gidoi erdiegituratu bat erabiltzen da eztabaidaren garapenerako, eta talde-garapen hori grabatu egiten da (edo audioan edo bideoan), gero transkribatu ahal izateko. Zenbaitetan, saioak haietarako bereziki prestatutako aretotan egiten dira (EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzien fakultatean sar zaitezke baten batera). Areto berezietan, pertsona batek kanpotik errepara diezairoke taldearen garapenari: behatzaileak ez du garapen horretan esku hartzen, oharrak hartzen ditu. Printzipioz, honi buruzko adostasun osorik ez badago ere, taldeen transkripzioetan ez da bereizten parte-hartzaile bakoitzak zer esan duen (adibidez, izenak jarrita); izan ere, eztabaida-taldean oinarrian dagoen ideia da gizarte-diskurtsoa kolektiboki eratzen eta berrantolatzen dela, eta prozesuan aurrera egin ahala, banakoen jarrera aldatu egiten dela. Dena den, esan bezala, lan egiteko hainbat modu daude eremu horretan.

Eztabaida-taldean beste funtsezko ezaugarri bat haietan parte hartzen duten pertsonen arteko homogeneousun-/heterogeneousun-maila da. Eztabaida-talde bat ez da irratiko edo telebistako solasaldi bat. Horietan ez bezala, helburua ez da iritziak alderatzea, baizik eta gizarte-konturen bati buruzko zenbait diskurtso birsortzeko eremu bat sortzea. Alderdi horretatik, beharrezkoa da adostasunerako aukeraren bat bermatuko duen nolabaiteko homogeneousuna egotea. Teoriaren arabera, eztabaida-taldea osatzen duten pertsonak ez dute elkar ezagutu behar (baina praktikan ez da beti baldintza hori betetzen) eta beren gizarte-ezaugarriek, gaiari dagokionez, beren artean harreman asimetrikorik edo diskriminatzailek ez izatea bermatu behar dute printzipioz. Horiek horrela, generoa izan da eta da egun ere eztabaida-taldean diseinuan gehien erabili diren aldagaietako bat. Kontuan hartzen diren beste aldagai batzuk gizarte-klasea, adina eta bizilekua izaten dira.

Dena dela, eztabaida-taldeetan oinarritutako ikerketa batean, gure diseinuak aukera eman behar du, talde-kopuru jakin bat eta zenbait aldagai (eskuarki soziodemografikoak) erabilia, ikertzen ari garen problemari buruzko askotariko diskurtsoak jasotzeko.



## **2.4 EKOIZPEN NARRATIBOAK**

### **Jatorria eta hastapenak**

Ekoizpen narratiboak (EN) ondorio metodologikoak dituen datuak ekoizteko teknika bat dira. Horrekin esan nahi dugu ekoizpen narratiboen atzean dagoen gogoeta hausnarketa tekniko hutsetik harago doala: ezagutzen ekoizpenaren alderdi espitemologikoekin, politikoeekin, etikoekin eta teorikoekin zerikusia du.

Ekoizpen narratiboak proposamen metodologiko bat dira, Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko (UAB) Gizarte Psikologia saileko FIC ikerketa-taldeak eginiko hausnarketa bat oinarri duena. Donna Harwayk laurogeita hamarreko hamarkadaren hasieran landutako ezagutza kokatuen ideia hartzen du abiapuntutzat proposamen metodologiko honek. Marcel Balasch eta Marisela Montenegrok, 2003an argitaratutako artikulu batean (esteka, bibliografian), ezagutza zientifikoaren demokratizazioari eta hedapenari buruzko Harawayren proposamena esparru metodologikora eta teknikora ekartzeko moduari buruz hainbat hausnarketa zehaztu zituzten. Proposamen hori aldatzen joan da eta hainbat modutan gauzatu da, hura erabili eta erabili ahala gogoetagai izan duten hainbat pertsonaren lanen eraginez.

Metodologia honen helburua testuaren lehen zatian aipatu dugun Harawayren proposamena serio hartzea da. Ezagutzaren ekoizpenari buruzko ideiei aurre egiten die proposamen horrek, besteak beste, zientzia positibistaren eta objektiboaren ideiare. Zientziaren ikuspegi horrek subjektu ikertzaitetik edo pentsatzaitetik kanpo kokatzen du ikergeraia; esan daiteke paradigma horretan subjektu ikertzailea desagertu egiten dela, edo, hobeto esanda, ikusezina dela. Hainbat zientziaren pentsalari feministaren lanak oinarri hartu ditu Harawayk, “hutsetik” eratzen den ezagutzaren ideia auzitan jarri dutenenak; zientziaren joera androzentrikoak eta arrazistak ezkutatu dituen ideia, hain zuzen. Hala ere, Harawayk kezka bat ere adierazten du, zientzia eratutako kontu bat dela kritikatzek “edozein lekutatik” ikertu daitekeela pentsatzea ekar baitezake; hots, objektibotasunaren ideia bera ezabatzea. Hori guztia gogoan, Harawayk ezagutza



kokatuen ideia proposatzen du, “fenomeno batetik gertu dauden pertsonen artikulazio partzialak eratzeko” modutzat, “ulertzeko modu eta esanahi berriak eratzeko aukera emango luketenak”. Garrantzitsua da Harawayren proposamena hemen adierazitakoa baino askoz konplexuagoa dela azpimarratzea, baina gogoeta epistemologikotan sakontzea ez da modulu honen helburua. Beraz, proposamen metodologiko hori ondo ulertu nahi baduzue, Harawayren testua patxadaz eta arretaz berrikustea edo irakurtzea aholkatzen dizuegu.

## Prozedura

Ezagutza ekoizteari buruzko ikuspuntu hori oinarri hartuta, ekoizpen narratiboaren prozedurak zenbait joan-etorri eta era artisauan jardutea eskatzen ditu, bai eta kontu handia eta zenbait hausnarketa garrantzitsu ere. Lehenik, ikerketan parte hartzen duten pertsonen lan-saioak/elkarrizketak egiten dira. Pauso horretan, teknika ez da elkarrizketaren teknikatik gehiegi aldentzen, eta hainbat aukera daude hari ekiteko: gidoi erdiegituratu bat egin dezakegu, edo galdera bakar batetik abiatu gaitzke, edo gertaeren kronologia oinarri hartu dezakegu... Esan bezala, hainbat aukera daude. Hitzordu horren emaitza oinarri hartuta (audio- edo bideo-grabaketa, transkripzioa...), ikertzaileak koherentea iruditzen zaion kontakizuna egingo du. Hau da, hitz egindakoari forma narratibo irakurgarria eta antolatua emango dio, ikertzaileari zentzuzkoa iruditzen zaiona.

Lehendabiziko testu hori pertsona parte-hartzaileari edo parte-hartzaileei entregatuko zaie, irakurtzeko eta aldaketak egiteko aukera izan dezaten, edo argibideak eta zuzenketak eskatzeko. Urrats honetan ohikoak dira “hau ez duzu egoki azaldu” edo “zergatik eman diozu halako garrantzia alderdi honi eta ez beste horri?” kontuen antzekoak. Kontakizunaren edukia negoziatzea da xedea, eta hori egiteko nahikoa izan daiteke testu idatzia lantzea; baina, beharbada, beste bilera bat egin eta zenbait kontu eztabaidatu, argitu... beharko da. Jakina, hori guztia faktore materialek asko baldintzatuko dute, hala nola parte-hartzaileek duten denborak edo beren gaitasunek. Beraz, garrantzitsua da teknikak eskatzen duen engaiamendu-maila kontuan hartzea eta horrek dakartzan zailtasunak aurreikustea. Argibide eta negoziazio horien ondoren,

kontakizuna “ixtea” erabakitzen dugun ueña iritsiko da. Horrek esan nahi du pertsona elkarrizketatuak espresuki onartzen duela kontakizunean adierazita dagoela landutako fenomenoari buruzko bere ikuspuntua.

Lan-saio horien azken emaitza ez da “datu” esaten zaionaren parekotzat jotzen. Parte-hartzaileak elkarrizketatzen ditugunean edo eztabaida-talde bat egiten dugunean, ekoizpen-teknika horien emaitzek datuak emango dizkigutela espero dugu. Ikerketa egiteko baliatu ditugun teoriaren argitan interpretatuko ditugu datu horiek, hots, “marko teoriko” esaten diogunaren arabera. Beraz, alde batetik teoriak daude eta, bestetik, datuak: bata zein besteak balorazio-maila desberdina dute, datuak teoriaren bidez interpretatzen baitira. Ekoizpen narratiboaren proposamen metodologikoan, aldiz, azken emaitza (ikertzailearen eta elkarrizketatuaren artean adostutako narrazioa) testu amaitutzat hartzen da. Testuak berezko balioa du, datu batek edo datu-multzo batek ez bezala. Ikertzaileak eta parte-hartzaileak elkarrekin sortutako zerbait da eta, beraz, ez da gero ikertzaileak “interpretatu” edo “aztertu” beharko duen testu bat, aurretiko prestaketa-prozesu bat egin baita dagoeneko. Kontakizunak ez ditu parte-hartzailearen barne-egoerak islatzen, elkarrizketatuaren eta ikertzailearen enkontruaren emaitza da. Horiek horrela, hainbat ondorio lortzen dira, adibidez:

- Era praktikoan jartzen da auzitan teoriaren eta esperientziaren arteko banaketa, hain zuzen, teknikaren emaitza (kontakizuna) berezko balioa eta izaera kokatu duen fruitu gisa hartzen delako, beste iturri teoriko batzuekin, buruz buru, elkarreraginean dagoena.
- Interpretazioak beti dira kokatuak; izan ere, ikertzaileak jasotako kontakizunen arteko loturak egiten dituzenean, bere ikuspuntutik egiten du analisia eta identifikatzen ditu ikuspegi desberdinen arteko tentsioak edo puntu komunak.
- Ikuspuntu kaleidoskopikoa jasotzen da. Hau da, kontakizun koherente bakarrean bateratu beharrik ez dagoen hainbat ikuspegi jasotzen dira, elkarreraginean jarri behar direnak.



- Ikertzailearen jarrera eraldatu egiten da ikerketa-prozesuaren eraginez, bai eta kontakizun bateratu bat egin behar duelako ere; izan ere, horrek agerian jartzen du jarreraren mugikortasuna (beste metodologia-mota batzuetan bigarren mailako kontua izaten da).

Horiek horrela, ekoizpen narratiboen ahalegina epistemologo feministek landutako zenbait ideia –ezagutza kokatua eta ezagutzaren difrakzioa– aplikatzea da (Donna Harawayrenak bereziki). Ekoizpen narratiboen helburuetako bat, zalantzarik gabe, pertsona ikertzailearen eta elkarrizketatutzat parte hartzen duen pertsonaren arteko asimetriak apurtzea edo, gutxienez, arintzea da. Teknika horrek, halaber, ezagutzaren nozioa eta haren ekoizpen-motak era zabalagoan itauntzea proposatzen du. Auzitan jarri nahi ditu teoriaren eta esperientziaren arteko asimetriak ere: izan ere, bata arrazionaltzat eta objektibotzat jotzen da eta bestea emozionaltzat eta subjektibotzat.

## **2.5 ETNOGRAFIA FEMINISTA ETA AUTOETNOGRAFIA**

Etnografia kultura garaikideen deskribapen sistematikoa da eta, hainbat ezagutza-alorretan erabiltzen bada ere, bere garapenak lotura estua du antropologiarekin. Deskribapen intentsiboa da, komunitate baten edo gizarte-talde baten praktika kulturelek ardaztua, eta eremu mugatu baten barnean lan egitea eskatzen du. Horrez gain, etnografian beharrezkoa da parte-hartze zuzena; hots, aztertu nahi den taldean edo komunitatean murgiltzea. Egia esan, metodo etnografikoa esan behar genuke, teknika ugari erabiltzen dituen metodoa, hala nola partaidetzazko behaketa, elkarrizketak eta ikus-entzunezko teknikak. Nolanahi ere, etnografia feministaren garapenaren garrantzia eta ekarpenak kontuan hartuta, lehen moduluan landu dituzuenak, egokia iruditu zaigu atal honetan sartzea.

Ekoizpen narratiboetan gertatzen den eran, ezagutzen ekoizpenaren alderdi epistemologikoekin, politikoeekin, etikoekin eta teorikoekin lotuta daude etnografia feministaren hausnarketak eta ekarpenak. Eta, hain zuzen, horiek dira guri interesatzen zaizkigun alderdiak.

Horiek horrela, antropologia feministak nabarmentzen du ikertzen dugunaren parte garela beti, eta harremanetan jartzeak jarrera bat hartzea dakarrela. Bestalde, Carmen Gregoriok dioen eran “hamarkadak dira galdetzen ari garela zer inplikazio dituen, subjektu generizatuak garen heinean, antropologoa izateak. Jarrera politiko kokatuetatik, bide dialogiko bat eratu da subjektuaren –dakiena– eta objektuaren –ikasten dena– artean, niaren eta bestearen artean”. (Gregorio, Carmen, 2014: 299).

Esan bezala, etnografiak landa-lana eskatzen du eta haren garapenerako erabakigarria da askotariko eragileen arteko harremana nola ulertzen dugun. Alde horretatik, hausnarketa interesgarrietako bat barruan-kanpoan dilema da, ikergai den komunitatearekin zer harreman-mota eduki behar den eztabaidatzen duena. Horiek horrela, eskuarki, antropologo feministek harreman hotz eta neutralak izatea baztertzen dute, eta harreman pertsonal eta afektiboen alde egiten dute, batzuek baita harreman sexualen alde ere. Noski, horrek ez du esan nahi mota horretako harremanek



dilemarik, are arazorik –praktikoak eta teorikoak– sortzen ez dutenik<sup>5</sup>. Dena dela, zenbait egilek kontu pertsonalak eta kontzeptualak bereizezinak direla eta pertsonala dena teorikoa ere badela aldarrikatu dute.

Mahaigaineratzen duten beste dilemetako bat, bai aurreko dilemarekin bai zientziaren neutraltasunaren aukerarekin lotuta dagoena, ikertutako komunitatearekiko edo taldearekiko gertutasunarena da. Hala, esaterako, ikertutako komunitatearen edo taldearen etnia berekoa izatea txalotu egiten da arlo akademikoan; aldiz, bere burua lesbianatzat definitzen duen ikertzaile batek identitate lesbikoaren eraketarekin lotutako kontuei buruz egindako lanak ez dira onartzen.

Ildo horretan, Jone Miren Hernandezek, ikastaro honetako beste modulu batzuetako irakasleak, proposamen interesgarria egin du: etnografia “habitatzea” proposatzen digu, gizarteko jarrera kulturalekin lotutako esperientziatzat ulertzeko, eta ez ezagutza abstraktu, inpertsonal eta testuinguruz kanpokotzat. Etnografia “habitatze” horretan kokatzen dugu guk Hernandezen autoetnografiari buruzko planteamendua.

Hernandezen hitzetan, “auto/etnografiak konpromiso paraleloa eskatzen dio antropologoari; batetik, bere kultura eta komunitatearekin –bere pertenezia-eremua, bere pasaportearekin– eta, bestetik, komunitate zientifikoarekin –bere adskripzio-eremua, bere unibertsitate-ziurtagiria–” (Hernández, Jone Miren, 1999: 57). Ondorioz, autoetnografian, landa-lana egiteko kontziente izan behar dugu bai sistematikoki aztertzen ari garen kultura eta komunitatea geure kultura eta komunitatea direnaz bai jarduera horretan genero-erolek duten eraginaz.

Azkenik, eta teknika hau xehetasunez garatuko ez dugun arren, ezin ditugu gorputz-ibilbideak aipatu gabe utzi. Teknika hori –Antropologia Feministaren moduluan landutako edukiei esker dakizuen eran– eragin handia izaten ari da Euskal Herriko antropologia feministaren garapenean. Mari Luz Esteban da teknika horri buruz eta teknika hori erabiliz lanean ari denetako bat (ikusi bibliografia).

<sup>5</sup> Horieta sakontzeko, Carmen Gregorioren (2014) artikulua irakurtzea gomendatzen dugu, ikusi bibliografia. Sexualitate ez-normatiboaren ikuspegitik, José Antonio Langarita antropologoak zenbait hausnarketa egiten du gaiari buruz *En tu árbol o en el mío. Una aproximación etnográfica a la práctica del sexo anónimo entre hombres* liburuan (Bellaterra argitaletxea, 2015).



## **2.6 PHOTOVOICE-A**

Datuak ekoizteko teknika honetan, ekoizpen narratiboetan bezala, ekoizpenaren eta azterketaren arteko muga lausotu egiten da. Horiek horrela, ikerle batzuek datuen ekoizpen-teknikatzat erabiltzen dute, baina beste batzuek urrats bat gehiago eman dute, eta beren ustez, teknika erabiltzeko moduak eragina izan dezake analisisian ere – ikerleen esku baino egoten ez dena–.

Photovoiceak lotura estua du PIEren eta PIEFaren printzipioekin; izatez, maiz, “partaidetzazko argazki” definizioa eman zaio eta, horrez gain, ikerketa-ekintzaren esparruetan oso errotuta egon da, akademian eta akademiatik kanpo. Ohiko teknika da esku-hartze sozialean, gizarte-lanaren edo pedagogia emantzipatzailearen antzeko diziplinetan, bai eta herri-mugimenduek sustatutako hainbat aldaketa-ekimenetan ere. Teknikaren prozedura nahiko erraza da. Edozein ikerketetan bezala, aurretik definitu daiteke lanerako komunitatea: gizarte-talde jakin bat izan daiteke, edo leku zehatz batekoa edo barreiatua. Ikerketan parte hartuko duten pertsona guztiei argazki-kamerak emango zaizkie (maiz, parte-hartzaileek berek eduki ditzaketan gailuak erabiltzen dira, telefono mugikorrek kasu). Argazki-makinak erraz ulertzen eta erabiltzen dituzte pertsona gehienek, baina ideia hori ere ezbaian jarri da, izan ere, ez da hala gertatzen ikusmen mugatua duten pertsonen edo itsuak direnen kasuan.

Edonola ere, parte-hartzaileei helburu bat jartzen zaie. Galdera bat edo gehiago defini daitezke, parte-hartzaileek nola edo hala argazkien bidez erantzungo dituztenak (argazki-kopurua mugatu daiteke, bat baino gehiago egiteko esan edo adierazi nahi dutenaren zentzua egokien islatzen dutenak aukeratzeko eskatu). Galdera nahikoa zabala baldin bada, photovoicearen teknikaren abantailetakoa bat da parte-hartzaileek erabakiko dutela zein izango den ikertzailearekin izango duten elkarrizketaren abiapuntua, eta horrek baldintzatuko du, aurrerantzean, datuen ekoizpen- eta interpretazio-prozesua.

Hurrengo pausoak emateko hainbat modu daude. Argazkiak parte-hartzaileak banaka elkarrizketatuta interpreta daitezke, baina saio kolektiboak ere egin daitezke datuak aztertzen hasteko; haietan, parte-hartzaileek beren argazkiak erabil ditzakete haiei buruzko beren ideiak, sentipenak, bizipenak eta interpretazioak adierazteko. Interpretazio-lana harago ere eraman daiteke, beti, parte-hartzaileen gogoia eta denbora kontuan hartuta. Adibidez, eztabaida-saioak egiteaz gain, argazkiak abiapuntutzat hartuta lehen saioetan ateratako ondorioak berregiteko saioak proposa ditzakegu ikertzaileok. PIEFaren ikuspuntutik, photovoicearen teknika interesgarri egiten dute ematen dituen aukera hauek:

- Parte-hartze zabalerako aukera, jende askok erraz samar erabiltzeko moduko tresna batean oinarrituta.
- Datuen interpretazioa elkarlanean egiteko aukera; saio horietan, bere argazkiak azaldu ahal izateaz gain, parte-hartzaile bakoitzak gainerakoen argazkien interpretazioan ere parte har baitezake.
- Ikerketa-teknikatik zuzenean fruitu bat jasotzeko aukera. Emaitza hori, gainera, erraz bilaka daiteke ikerketa-ekintza bat, hala nola jendeak ikusteko erakusketa kolektibo bat, web orri bat edo aldizkari/fanzine bat.

### 3. DATUAK AZTERTZEKO TEKNIKAK

Datuen ekoizpen-prozesua eta azterketa lotzeko hainbat modu daude, baina ohikoa da ikerketako etapa bereizitzat jotzea: lehendabizi datuak ekoizten ditugu eta, gero, aztertu. Hala ere, zenbait korronteren arabera, egokiagoa litzateke elkarri lotutako prozesuak izatea. Ikuspegi horiek datuak ekoizti ahala aztertzearen abantailak azpimarratzen dituzte; besteak beste, datuen ekoizpenaren norabidea aldatzeko aukera ematen du. Adibidez, elkarrizketa guztietan gidoi bera erabiltzen ari bagara eta denak amaitu arte aztertzen ez baditugu, ez dugu, elkarrizketetan sortutako gai edo galdera berriak txertatuta, prozesua berbideratzeko aukerarik izango. Aldiz, lehen elkarrizketak aztertu eta gai batzuei buruzko nahikoa datu ditugula hautematen badugu (baina ez hala beste batzuei buruz), gidioa berregin ahal izango dugu hobetu eta mota gehiagotako datuak ekoizteko.

Era berean, hainbat ikuspegi daude, parte-hartzearen aldetik, datuen azterketa-prozesua bideratzeko moduari buruz. Ohikoena datuen azterketa-prozesua pertsona-edo talde-ikertzailearen esku uztea izan da. Hainbat egilek azpimarratu du interesgarria dela datuak taldean aztertzea, horrela, ikuspegi eta ñabardura gehiago aurkitu ahal izango baita. Horrez gain, aurretik azaldutako ekoizpen-tekniketako batzuetan ikusi dugun eran, *photovoice*-an kasu, datuak interpretatzeko prozesura ere gonbida daitezke pertsona parte-hartzaileak (elkarrizketatuak, adibidez). Egile batzuen ustez, modu horretan, parte-hartzaileen ahotsak gehiago hartzen dira aintzat, jakintza sortzeko modu kolektibo bide egiten zaie eta ikertzaileen gaininterpretazioa ekiditen da. Azken kontu hori bereziki deserosoa izaten da ikertutako pertsonentzat, haien hitzak testuingurutik atera direla eta haien interpretazioa intentzio baten arabera gehiegi lerratu dela sentitzen baitute.

Datuen azterketa- eta interpretazio-prozesua beti prozesu ireki bat dela azpimarratzea ere garrantzitsua da. Ikerketaren hasieran mugatu badugu ere azterketa-prozesuan zer kategoria edo aldagairi emango diegun arreta berezia, ohikoa da deigarriak izango zaizkigun beste kategoria edo kontu batzuk agertzea. Ikerketaren baldintzen arabera ere izango da –epeen eta giza- zein ekonomia-baliabideen arabera–



aurreikusi gabeko kontu horietan jarri ahal izango dugun arreta. Baliteke gure interpretazioan nahiko erraz txertatu ahal izatea edo baliteke etorkizuneko beste ikerketa batzuetarako utzi behar izatea.

Azkenik, garrantzitsua da lehen mailako datuak eta bigarren mailakoak bereiztea. Lehen mailako datuak, ikerketa-prozesuan bertan, egokiera horretarako ad hoc sortutako datuak dira. Bigarren mailako datuak, berriz, hainbat erakundek sortutakoak (adibidez, estatistika-institutuek) edo beste ikerketa batzuetan ekoizitakoak (adibidez, CISek, Espainiako Ikerketa Soziologikoen Zentroak, beren ikerketetako elkarrizketen eta eztabaida-taldeen transkribapenak deskargatzeko aukera ematen du) dira; hau da, guk sortu edo jaso ez ditugun datuak dira. Bi datu-motak bateragarriak eta, maiz, osagarriak dira.

Ondoren, datuak aztertzeko zenbait teknika azalduko dizkizuegu, aipatutako kontuak eta beste batzuk ikusteko baliagarriak. Gainera, eginkizunari ekiteko ditugun aukera ugarien erakusgarri ere izango direla espero dugu.

### 3.1 DATU KUANTITATIBOEN USTIAPENA

Datu kuantitatiboak ikuspegi feministatik ustiatzeko prozesuari dagokionez, hainbat fase bereiziki behar direla uste dugu. Lehen fasean adierazleak eratzten dira; hots, eskura dugun informazioa nola zehaztuko eta aurkeztuko dugun aukeratzeko prozesua egiten da. Beharbada desparekotasunak zuzenean islatzen dituzten adierazleak eratuko dituzue edo agian sexutan banatutako adierazleak erabiliko dituzue, gero, alderatzeko. Egiteko bi modu horiek ez dira bata bestearen baztertzaiileak, eta zenbaitetan zaila da bata bestetik bereiztea. Bigarren pausoa datu horiek ikuspegi feminista edo genero-ikuspegi batetik aztertzea da. Ikus dezagun hori era grafikoan:

#### 1. irudia Datu kuantitatiboan ustiapena

**¿Cómo tratamos de captar y analizar la realidad social desde una perspectiva de género?**



Iturria: Luxán, Marta eta Martín, Unai (2014). *Azterketa eta Ikerketa Kuantitatiboak Genero Ikuspuntutik* ikastaroko irakaskuntza-materiala. IVAP.

Baina, zer dira adierazleak? Eva Alfama-ren eta Marta Cruells-en arabera, “adierazleak informazioa sortzeko tresnak dira; gizartearen zenbait alderdi gutxi gorabehera





erakutsiko edo adieraziko dituzten datuak. Marko kontzeptual esplizitu bat oinarri hartuta eratzen dira eta erreferentziako gizarte-testuinguru bati lotuta egon behar dute: testuinguru hori izango da emaitzen interpretazioaren abiapuntua (Domínguez eta Simó, 2003). Adierazle sendo batek informazio *garrantzitsua* eman behar du ikertu nahi den fenomenoari buruz eta, horrez gain, *doia*, *neurgarria*, beste adierazle batzuekiko *independentea* –ahal den neurrian–, aldaketekiko *sentikorra* eta interpretatzeko *erraza* izan behar du (EVALSED, 2010)” (Alfama eta Cruells, 2012: 13).

Adierazleak oso presente daude gure eguneroko bizitzan –nork ez du entzun Barne Produktu Gordinari buruz (BPG) edo jaiotza-tasari buruz?– eta, Cristina Carrasco-k (2006) zuzen dioen eran, adierazle horiek intentzio politiko baten arabera mundu ikuskerara eta haren eraketaren oinarrian dagoen ikuspegi teorikora egokituta egoten dira. Esaterako, ez da gauza bera garapen-adierazletzat BPGa erabiltzea edo Giza Garapenaren Indizea (GGI) erabiltzea; bakoitzaren oinarrian dagoen garapenaren ikuspuntua oso desberdina baita.

Azken hamarkadan genero-ikuspegia duten hainbat adierazleren eta adierazle-sistemaren proposamenak garatu dira<sup>6</sup>. Ondoren, genero-desparekotasunak adierazteko erabiltzen ari diren zenbait adierazle orokorren berri emango dugu (hau da, datu kuantitatiboak adierazteko moduak), bai eta haien aplikazio jakinen berri ere. Hauek dira adierazle horiek: banaketa-indizea, kontzentrazio-indizea, genero-arraila eta feminizazio-indizea.

**BANAKETA-INDIZEA.** Ezaugarri/egoera jakin bateko gizonen eta emakumeen banaketa neurtzen du; ezaugarri jakin bat duten pertsonen –gizon eta emakumeak– ehunekoa. Ikus dezagun adibide bat:

**Hainbat delituren edo erasoren biktima izandako etxerik gabeko pertsonak, sexuaren arabera. 2005**

<sup>6</sup>Ikusi bibliografiako *Adierazle-sistemi buruzko gidak eta proposamenak* atala.

	Agresión	Robo	Agresión sexual	Timo	Insulto/ amenaza
Hombres	78,7	82,4	36,6	80,0	81,7
Mujeres	21,3	17,6	63,4	20,0	18,3
TOTAL	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Etxerik gabeko pertsonen inkesta. INE  
(Espainiako Inkesta Institutua)

- Taula zutabez zutabe irakurtzen da.
- Guztizkoa gizonen eta emakumeen batuketaren emaitza da.
- Interpretazioa: Erasoen %78,7 gizonek jasaten dute. Lapurreten %17,6 emakumeek jasaten dute.
- **Kontuz!:** Adierazle hori oinarri hartuta, ezin dugu gizonek emakumeek baino eraso gehiago jasaten dutenik ondorioztatu. Zergatik? Laginean 18.111 gizon daudelako guztira, eta 3.790 emakume.

**KONTZENTRAZIO-INDIZEA:** ezaugarri jakin bat duten gizonen eta emakumeen ehunekoa. Ikus dezagun adibide bera:

**Hainbat delitu edo erasoren biktima izandako etxerik gabeko pertsonak, sexuaren arabera. 2005**

	Agresión	Robo	Agresión sexual	Timo	Insulto/ amenaza	TOTAL*
Hombres	24,9	40,2	1,6	18,4	41,4	100,0
Mujeres	32,2	41,0	12,8	22,0	44,4	100,0

Iturria: Etxerik gabeko pertsonen inkesta. INE (Espainiako Inkesta Institutua)

\*Gutzizkoa %100a baino handiagoa da, pertsona bakoitzak

*eraso/delitu bat baino gehiago jasan ahal izan baitu.*

- Taula lerroz lerro irakurtzen da
- Guztizkoa eraso-moten batuketaren emaitza da (kasu honetan batura %100a baino handiagoa da)
- Interpretazioa: **Gizonen %24,9ak jasan du erasoren bat, eta emakumeen %32,2ak. Aldiz, emakumeen %12,8ak jasan ditu eraso sexualak, eta gizonen %1,6ak.**
- **Adierazle hau egokia da ikusteko askotariko fenomenoak ez direla neurri berean gertatzen gizonen eta emakumeen artean.**
- **Ez du eraginik laginean emakumeak baino gizon gehiago egoteak, ehunekoak sexu bakoitzarentzat kalkulatzen baitira!**

**GENERO-ARRAILA:** Emakumeen eta gizonen %aren artean dagoen guztizko alde (taula lerroka erabilia). Adibide bera erabiliko dugu oraingoan ere:

**Hainbat delitu edo erasoren biktima izandako etxerik gabeko pertsonak, sexuaren arabera. 2005**

	Agresión	Robo	Agresión sexual	Timo	Insulto/ amenaza	TOTAL*
<b>Hombres</b>	24,9	40,2	1,6	18,4	41,4	100,0
<b>Mujeres</b>	32,2	41,0	12,8	22,0	44,4	100,0

Iturria: Etxerik gabeko pertsonen inkesta. INE (Espainiako Inkesta Institutua)

*\*Guztizkoa %100a baino handiagoa da, pertsona bakoitzak eraso/delitu bat baino gehiago jasan ahal izan baitu.*

- Datuak lerroka irakurtzeko aukera ematen duen taula batean antolatu behar dira datuak.
- Kalkulua:  $\%12,1 - \%1,6 = 11,2$

- Interpretazioa: Emakumeek jasandako erasoak 11,2 puntu ugariagoak dira gizonak jasaten dituztenak baino. Gizonak jasandako erasoak eta emakumezkoek jasan dituztenen artean 11,2 portzentaje-puntu aldea dago.
- **Interpretazio okerra!:** Emakumeen aurkako erasoak %11,2 gehiago izan ziren gizonen aurkakoak baino.
- Adierazle hau garrantzitsua da garaiak, lekuak... alderatzeko. Izatez, Munduko Ekonomia Foroak izen hori duen adierazle bat (genero-arraila globala/global gender gap) kalkulatu du urtero, 144 herrialdetan<sup>7</sup>.

**FEMINIZAZIO-INDIZEA:** Emakumeen eta gizonen ehunekoen arteko alde erlatiboa [taula lerroka erabilia]

**Hainbat delitu edo erasoren biktima izandako etxerik gabeko pertsonak, sexuaren arabera. 2005**

	Agresión	Robo	Agresión sexual	Timo	Insulto/ amenaza	TOTAL*
Hombres	24,9	40,2	1,6	18,4	41,4	100,0
Mujeres	32,2	41,0	12,8	22,0	44,4	100,0

Iturria: Etxerik gabeko pertsonen inkesta. INE (Espainiako Inkesta Institutua)

\*Guztizkoa %100a baino handiagoa da, pertsona bakoitzak eraso/delitu bat baino gehiago jasan ahal izan baitu.

- Datuak lerroka irakurtzeko aukera ematen duen taula batean antolatu behar dira datuak.
- Kalkuluak:  $\%12,8 / \%1,6 = 8$

<sup>7</sup>Informazio gehiago <http://reports.weforum.org/global-gender-gap-report-2015/the-global-gender-gap-index-2015/> gunean.

- Interpretazioa: Emakumeen aurkako erasoak gizonezkoen aurkakoak baino 8 aldiz ugariagoak dira. Emakumeek gizonek baino %800 eraso gehiago jasaten dute.
- Aurreko adierazlearen eran, hau ere garrantzitsua da garaiak, lekuak... alderatzeko.

Informazio gehiago aurkituko duzue bibliografiako adierazle-sistemen proposamenei eta gidei buruzko atalean.



### **3.2 DISKURTSOAREN ANALISI KRITIKOA IKUSPEGI FEMINISTATIK**

Zaila da ikuspegi feministatik egindako diskurtsoaren azterketa kritikoa (hemendik aurrera DAKF: diskurtso-analisi kritiko feminista) teknika bat dela esatea, hain zuzen ere, gutxi direlako DAKFa nola egin zehazten duten proposamen sistematizatuak.

DAKFaren jatorria hizkuntzaren eta bira linguistikoaren teoriekin oso lotuta dago. Bira linguistiko esaten diogu gizarte-zientzietan, bereziki hirurogeiko eta hirurogeita hamarreko hamarkadetan, gertatutako birari: hizkuntzak errealitatearen deskribatzaile huts izateari utzi zion, eta errealitatea sortzen duen elementutzat hartzen hasi ziren une horretan. Hizkuntzarik gabe ezingo genuke errealitatean barna ibili eta, beraz, ezaugarri aktiboak ditu hizkuntzak, “gauzak egiten dituen” neurrian. Michel Foucault-ek gaiari buruz egindako ekarpenak oso garrantzitsuak dira DAKFaren jatorria ulertzeko; izan ere, bere lanean “diskurtso” nozioaren funts nagusiak zein beste antzeko kontzeptu batzuk (hala nola “diskurtso-eremua” edo “enuntziatua”) definitu zituen DAKFa egiteko oinarritzko tresnak. Foucaultek proposatutako kontzeptuak hainbat egilek erabiltzen ditu gaur egun ere, baina horrek ez du esan nahi ezbaian edo auzitan jartzen ez direnik.

#### **Diskurtso kontzeptua**

Garrantzitsua da esatea diskurtso kontzeptua diskurtso hitza definitzeko era nahiko espezifiko dela, ez dena eskuarki diskurtsotzat ulertzen dugunera mugatzen. Diskurtso esaten dugunean ez gara ari jendaurrean esandako esaldi-sorta bati buruz (adibidez, ikasturte akademikoaren inaugurazio-diskurtsoa esaten dugunean bezala). Ez gara ari ahoskatutako edo idatzitako edozein esaldiri buruz ere. DAKFa egiten dugunean, testua eta diskurtsoa bereizten ditugu, hain zuzen: izan ere, testua (edo testu-multzoa, corpus izenekoa) aztertzen dugunean, hartan biltzen diren eraketa diskurtsiboak aurkitzeko edo, gutxienez, bilatzeko egiten dugu. Diskurtsoarena kontzeptu zabalagoa da, beharbada abstraktuagoa, eta haren zantzuak bilatzen ditugu testuetan. Hala ere, garrantzitsua da esatea diskurtsoaren azterketari buruzko bibliografian diskurtsoaren

nozioa hitz polisemikotzat agertzen dela, eta horrek zaildu egiten du DAKFarekin lotzea. Diskurtsoak, alde horretatik, esanahi hauek izan ditzake:

-Uneren batean esaten den guztia.

-Leku eta une jakin batean esaten den enuntziatu-multzoa (hemen bai, inaugurazio-diskurtsoaz ari gara).

-Ekoizpen-baldintza zehazgarriak dituen enuntziatu-multzoa.

Azken definizioa guztietan abstraktuena eta txertatzeko zailena da, baina, halaber, DAKFa ardazten duen kontzeptua ere bada. Diskurtso diogu esaten edo idazten denak zenbait baldintza zehazten dituenean, edo esaten edo idazten dena zenbait baldintzak zehazten duenean: ez dago diskurtsorik baldintza horiek gabe. Abiapuntuan dagoen oinarria da diskurtsoari esker gauzatu daitekeela hizkuntzaren bidez adierazten den errealitate bat. Adibidez, medikuntza modernoak “homosexual” kontzeptua zenbait ezaugarriko kategoria itxiztat definitu arte, homosexualitatea aipatzea ezinezkoa zen. Izatez, definizio mediko hori bera erabili zuten, gero, beste testu batzuetan. Esaterako, pertsona homosexualen aldeko erakundeen lehen testuetan homosexualitatea gaixotasun gisa uler zedin aldarrikatzen zen eta ez desbideratze edo perbertsio boluntario gisa. Definizio horrek plataforma bat ematen zien homosexualitatea praktikatzeko zuten pertsonen errespetua eskatzeko. Adibide hori oinarri hartuta, esan dezakegu aipatutako erakundeen testuek medikuen diskurtsoaren eragina dutela (diskurtso medikoa diogu hauteman daitezkeen formak dituelako) eta, beraz, “homosexual” hitza medikuntzako ez den testu batean agertzeko aukera medikuntzak hainbat praktika zer diren deskribatzeko eta zehazteko duen ahalmenarekin lotzen da. Beraz, diskurtso medikoaren boterea datza homosexualitateari eman zion definizioa zabal onartutako zentzuzko definizio bilakatzeko ahalmenean.

DAKFaren xede nagusia, beraz, gizartean diskurtsoek zer baldintzatan eragiten duten bilatzen ahalegintzea da. Horretarako, hainbat analisi- eta teoria-maila erlazionatzen dira, testuari lotutako kontu oso zehatza edo kontu oso abstraktuak izan daitezkeenak. Alde horretatik, DAKFa hainbat ekarpen analitiko hornitzen da gizarte-kontuak diskurtsoarekin lotzeko, hala nola gramatikari eta linguistikari buruzko hainbat teoriez,

hizkuntzaren erabilerari buruzko azterketez, erretorikaz eta diskurtsoaren teoriak. Azken finean, hizkuntza tresna neutrotzat hartu beharrean, esanahiz betetako eta ahalmen sortzailea eta eraldatzailea dituen tresnatzat jotzea da helburua, botere- eta despaketotasun-harremanek baldintzatzen dutena. Alde horretatik, DAKFaren xedeaak hauek izan daitezke, besteak beste:

- Diskurtsoa ekoizteko aukera izatea bera botere-ariketa bat dela nabarmentzea. Edozein gizarte-ekintza baldintzatuko du tartean diren pertsonen zein taldeek egoera definitzeko duten ahalmenak, hala nola definizio horri kontra egiteko edo ukatzeko dutenak.
- Botere-erlazioak hizkuntzaren bidez nola eta zer baliabide erabiliz finkatzen eta betikitzen diren aztertzea, bai eta haiei nola aurre egin eta haiek nola aldatu aztertzea ere.
- Edozein gizarte-gairi buruz zer posiziotatik “hitz egin” daitekeen, hartarako posizio legitimoak zein diren eta zein baztertzen diren esatea.
- Gizarte-gai bati buruz zer eremutan eztabaidatuko den mugatzea, bai eta eztabaidan zer posizio onartuko diren eta zer aukera geratuko diren hartatik kanpo ere.

Horiek horrela, DAKFa lehen aipatutako askotariko tresnaz eta beste hainbat teoriak hornitzen da, hizkuntzaren atzean ezkutatzen diren konplexutasun-maila guztiak lotu ahal izateko, bai esamolde edo hitz jakinen erabilera bai elementu erretoriko konplexuak edo hizkuntza jaso eta interpretatzeko moduak. Prozeduraren aldetik, ez dago jarduteko modu bakarra, baina pauso hauek iradokiko ditugu:

1. **Analisi-corpus bat definitzea:** aztertuko diren testuak aukeratzea. Normalean, alor jakin batean esanguratsutzat hartzen diren testuak dira. Garrantzitsua da kontuan izatea, DAKFa analisi nahiko xehatuetan oinarritzen



denez, testu oso luzeak eta testu ugari aukeratzeak gure zeregina zaildu dezakeela.

2. **Testuak** hainbat ikuspuntutatik **analizatzea**: maila askotako analisi-eredua aukera daiteke, edo analisi-modu bakar bati ekin. Maila askotako ereduak begirada osatuagoa eta konplexuagoa emango digu. Zer esan nahi du horrek? Testuak hainbat aldiz irakur ditzakegula kontu desberdinen bila. Behin, baliabide gramatikal esanguratsuak aurkitzeko (aditz-pertsonen edo egituren erabilera); beste behin, hitz jakinak bilatzeko, esanahi-multzo hautemangarrietara eramango gaituztenak (adibidez, hizkuntza juridikoa edo medikoa); beste behin, baliabide erretorikoak eta haien esanahia aztertzeko (hala nola falaziak eta metaforak). Hala, testu bera hainbat mailatan azter dezakegu eta hainbat “irakurketa” egin.
3. **Gure ustez analisiaren zer aspektu diren esanguratsuak zehaztea**: testuetako osagaiak aztertuz funtsezko zenbait kategoria edo elementu hauteman dezakegu, gero, analisisan lotu ditzakegunak. Esaterako, honi buruz edo besteari buruz aritzeko hainbat testutan hizkuntza-mota bat erabiltzea garrantzitsua dela hautematen badugu, gainerako testuetan ere bilatzea erabaki dezakegu.
4. Testuen **analisiari** aurkitutakoa **gizarte-teoriarekin lotzea**: ezinbestekoa da, aztertzeaz gain, ikusten ari garena interpretatzea. Horiek horrela, testuetan ikusitakoa eta egokiak iruditzen zaizkigun edo testuek “diotena” azaltzeko baliagarriak zaizkigun ekarpen teorikoak lotzeko urratsa eman beharko dugu.
5. **Ondorio** orokorrak **ateratzea** eta aurkeztea.

Garrantzitsua da DAKFa eta DAK (Diskurtsoaren Analisi Kritikoa) oso lotuta daudela argitzea: printzipioz, oinarri teoriko eta kokapen bera dituzte. Egile batzuek, aldiz, DAKFan “F”a esplizitatzea garrantzitsua dela diote, izan ere, DAKak enfasia hizkuntzaren bidez adierazten eta betikotzen diren botere-desparekotasunak aztertzean jartzen baldin badu ere, genero-kontuak alde batera utzi ditu maiz. Beste egile batzuen

ustez garrantzitsua da azpimarratzea DAKFa ez dela genero-ikuspegia edo ikuspegi feminista duen DAK hutsa, harago doan ekarpena dela harena; izan ere, bi-biak biltzen ditu, bai botereari buruzko hausnarketa teoriko feministak bai ezagutzari eta hura ekoizteko moduei buruzko epistemologia feministen ekarpenak.



### **3.3 EDUKIAREN ANALISIA**

Edukiaren analisia esaten diogu komunikazio-produktuen (mezuak, testuak...) analisi metodikoa egiten duen metodologiari. Komunikazio-produktu horiek aurretik erregistratutako iturrietatik lortzen dira eta ikerketa batean egindako elkarrizketen transkripzioak edo argitaratutako materialak izan daitezke, hala nola artikulua, iragarkiak eta akta publikoak. Edukien analisia egiteko hainbat ikuspuntu daude: kuantitatiboa (hitz bat, esamolde edo irudi jakin bat gure corpusean zenbat aldiz ageri den zenbatuta, adibidez), kualitatiboa (definitutako zenbait kategoriaren arteko loturak eginda, adibidez), edo mistoa, bi ikuspuntuak triangulatuta, (analisi kuantitatibo-deskribatzailea elementu kualitatibo-ulerkorrekin batera erabilia).

Esan daiteke, edukien analisia ez dela testuak lantzeko diskurtsoaren analisia bezain lan egiteko modu konplexua; gutxienez, metodo horren helburua ez da DAKFak proposatzen duen eran testua aztertzeke hainbat abstrakzio-maila erabiltzea. Alde horretatik, oso erabilgarria da testuen corpus oso zabala edo testu luzeak aztertu nahi ditugunean; esaterako, elkarrizketen transkribapenak.

Testuen analisisian oinarritzen den beste edozein teknikan ematen diren pausoak ematen dira edukien analisisian ere, baina urratsetako batzuetan arreta berezia jartzen da:

- **Aztertuko den corpusa definitzea.** Teknika honetan corpus zabalagoa defini dezakegu, bai testuen luzeraren bai testuen kopuruaren aldetik. Hori horrela, teknika honetan urrats hau eta hurrengoa oso lotuta daude eta, izatez, ohikoa da aldi berean edo tarteka egitea, bata besteari eragiteko moduan.
- **Analisi-kategoriak definitzea.** Analisia zer ikuspuntutatik egingo dugun definitzea erabakigarria da. Dokumentuen corpusak zabalak izango direnez, zehazki zer bilatuko dugun ondo definitzen ez baldin badugu analisia ez da bideragarria izango. Bilatzen duguna ondo mugatzeak gainerako informazioa



diskriminatzeko eta arreta bila gabiltzan horretan jartzeko balioko digu. Horrela, ez ditugu testuetan bila ez gabiltzan kontuak aurkituko, eta beraz, ez zaizkigu interesatzen zaizkigunak oharkabean pasako. Hala ere, beste aukera bat testu-multzo txikiagoan analisi “askeagoa” (kategoriarik gabea) egitea da, hain zuzen, kategoriak analisi horretatik abiatuta definitzeko.

- **Datuak biltzea eta sistematizatzea:** informazio-kopuru handi samarra erabiltzen denez, garrantzitsua da informazio hori biltzeko eta sistematizatzeko prozedurak zehaztea. Horretarako, programa informatikoak, fitxak, oharak... erabil ditzakegu. Erabiliko ditugun tresnak, neurri handi batean, egiten ari garen analisiaren arabekoak izango dira. Adibidez, analisi kuantitatibo bat egiten ari bagara, testuak prozesadore batean sartuko ditugu kointzidentziak aztertzeko... Gure analisian, arreta zenbagarriak ez diren hainbat alderditan jartzen badugu, informazioa taulatan jaso dezakegu, gero, erraz kontsultatzeko. Garrantzitsua da informazioei beharrezko erreferentziak jartzea, berriro kontsultatu ahal izateko.
- **Datuak aztertzea,** gure ikuspegiaren arabera. Datuak interpretatzeko zer teoria eta metodologia aukeratu dugun esplizitatu behar dugu beti, bai eta politikoki eta gure helburuen aldetik gure joera edo jarrera zein den ere.
- **Ondorio** orokorrak **ateratzea** eta aurkeztea.

Ikuspuntu feministatik garrantzitsua da analisi-kategorietan arreta jartzea. Gai horrekiko kezka ez da soilik analisi-teknika honen kontua, metodologia ugari hartzen baitute kategorien definizioa gai nagusizat, eta teknika askok ez luke funtzionatuko aurretik banaketa horiek egin gabe. Hala ere, teoriko feminista askok ohartarazi du kategorizazioaren zailtasunez eta arriskuez, bereziki, gizarte-identitateak kategorizatzen baditugu, maiz, aurretik pentsa dezakeguna baino konplexuagoak direnak. Adibidez, genero-kategoriak sortzen baditugu, gure kategoriak maskulinora eta femeninora muga ditzakegu; eta berez, badakigu pertsonen genero-bizipenak errealitate horiek gainditzen dituela.



Horiek horrela, garrantzitsua da kategoriak diseinatzen ditugunean kategorizazioen ahulguneak agerian jartzeko aukerak jasotzea. Era berean, garrantzitsua da analisiak egiten ditugunean kontuan hartzea analisi-kategoriak guk eratu ditugula eta gure ikerketaren beharren arabera direla eta, beraz, ez direla neutroak. Ez da gauza bera gizarte-errealitatean generoa gizonezkotan eta emakumezkotan banatzen dela esatea, edo kategorizazio hori aukeratu dugula esatea, fenomeno bat edo bestea hobeto azaltzen duelako. Identitateari buruzko eztabaida feministak, hala nola intersektionalitateari buruzko ekarpenak, argigarriak izango zaizkigu bi hauek artikulatzeko; batetik, kategoria totalizatzaileen kritika, eta bestetik, kategorizazioaren beharrezkotasuna gure ikuspuntuak eta aurkikuntzak azaltzeko.

## BIBLIOGRAFIA ETA WEB BALIABIDEAK

### Epistemologia eta ikerketa-metodologia feministei buruzko kontu orokorrak

Alexander, Mary Jaqui eta Mohanty, Chandra (2004). Genealogías, legados, movimientos. In bell hooks et alii. (2004). *Otras inapropiables. Feminismos desde la frontera*. Madrid: *Traficantes de Sueños*, 137-184.  
<https://www.traficantes.net/libros/otras-inapropiables>

Anderson, Elisabeth. (2010). Feminist Epistemology and Philosophy of Science. En *The Stanford Encyclopedia of Philosophy* (Fall 2015 Edition) (Edward N. Zalta (ed.)).  
<http://plato.stanford.edu/archives/fall2015/entries/feminism-epistemology>.

Athenea Digital 14. alea (2015). Tema Especial. *Experiencias de investigación feminista: propuestas y reflexiones metodológicas*

<http://atheneadigital.net/issue/view/v14-n4>

Díaz Martínez, Capitolina eta Dema Moreno, Sandra. (2013). *Sociología y género*.  
Madrid: Tecnos.

Eichler, Margrit. (1997). Feminist Methodology. *Current Sociology*, 45(2), 9-36.

Eichler, Margrit. (1991). *Non-sexist Research Methods*. Londres: Routledge.

Esteban Galarza, Mari Luz (2008). Etnografía, itinerarios corporales y cambio social:  
apuntes teóricos y metodológicos. In Imaz (koord.) *La materialidad de la identidad*.  
Donostia: Hariadna Argitaletxea, 135-158.

Fernández, Victoria (2016). *Ciencia, Tecnología y Género*. Emakume eta Gizonen  
Berdintasunaren Gaineko Masterra: Berdintasun Eragileak.

Haraway, Donna. (1988). *Situated knowledges: The science question in feminism and  
the privilege of partial perspective*. *Feminist studies*, 14(3), 575-599.

Harding, Sandra. (1996). *Ciencia y feminismo*. Madrid: Ediciones Morata.

Martín Palomo, María Teresa; Muñoz Terrón José María. (2014). Epistemología,  
metodología y métodos. ¿Qué herramientas para qué feminismo? Reflexiones a partir  
del estudio del cuidado. *Quaderns de Psicologia*, 16(1): 35-45.  
<http://www.quadernsdepsicologia.cat/article/view/1213>

Mendia, Irantzu, Luxán, Marta, Legarreta, Matxalen, Guzmán, Gloria, Zirion, Iker eta  
Azpiazu, Jokin (Eds.). (2015). *Otras formas de (re)conocer. Reflexiones, herramientas  
y aplicaciones desde la investigación feminista*. Bilbao: Hegoa/SIMReF  
[http://publicaciones.hegoa.ehu.es/assets/pdfs/329/Otras\\_formas\\_de\\_reconocer.pdf?  
1429005444](http://publicaciones.hegoa.ehu.es/assets/pdfs/329/Otras_formas_de_reconocer.pdf?1429005444)

Westmarlan, Nicole (2001). "The Quantitative/Qualitative Debate and Feminist  
Research: A Subjective View of Objectivity", *Forum: Qualitative Social Research* 2 (1),  
art 13. <http://www.qualitative-research.net/index.php/fqs/article/view/974>



## Ikerketa-teknikak eta datuak sortzeko eta aztertzeko teknikak

Azpiazu Carballo, Jokin (2015) Análisis crítico del discurso con perspectiva feminista. In Mendia, Irantzu, Luxán, Marta, Legarreta, Matxalen, Guzmán, Gloria, Zirion, Iker eta Azpiazu, Jokin (Koor.) *Otras formas de (re)conocer. Reflexiones, herramientas y aplicaciones desde la investigación feminista*. Bilbo: Hegoa/SIMReF 111-123.

Balash, Marcel eta Montenegro, Marisela (2003). Una propuesta metodológica desde la epistemología de los conocimientos situados: Las producciones narrativas. *Encuentros en Psicología Social*, 1(3), 44-48. <http://bit.ly/2ct8Y7D>

Gordo Lopez, Angel J. eta Serrano, Araceli (koor.) (2008). *Estrategias y prácticas cualitativas de investigación social*. Madril, Pearson-Prentice.

Gregorio Gil, Carmen. (2014). Traspasando las fronteras dentro-fuera: reflexiones desde una etnografía feminista. *Revista de Antropología Iberoamericana*, 9(3), 297-322.

Hernández, Jone Miren. (1999). Auto/biografía. Auto/etnografía. Auto/retrato. *Ankulegi, ale berezia*, 53-62.

Luxán, Marta et all. (2009). “Qué nos oculta el velo estadístico? Reflexión feminista en torno al diseño i la explotación de las fuentes de datos sociales”. *Bilduma: Ikerketa Feministarako Metodologiari buruzko Diziplinarteko Mintegia (SIMREF)*. <https://vimeo.com/34935684> (vídeo)

McIntyre, Alice (2003). Through the eyes of women: photovoice and participatory research as tools for reimagining place. *Gender, Place and Culture: A Journal of Feminist Geography*, 10(1), 47-66.

Montañes Serrano, Mauel (2010). *El grupo de discusión*. CIMAS (Herriartasunaren eta Ingurumen Iraunkorraren Nazioarteko Behatokia) koadernoak. [http://www.redcimas.org/wordpress/wp-content/uploads/2012/08/m\\_MMontanes\\_ElGRUPO.pdf](http://www.redcimas.org/wordpress/wp-content/uploads/2012/08/m_MMontanes_ElGRUPO.pdf)

Piñuel Raigada, José Luis (2002). Epistemología, metodología y técnicas del análisis de contenido. *Sociolinguistic Studies* 3, 1. alea, 1-42. [https://www.ucm.es/data/cont/docs/268-2013-07-29-Pinuel\\_Raigada\\_AnalisisContenido\\_2002\\_EstudiosSociolinguisticaUVigo.pdf](https://www.ucm.es/data/cont/docs/268-2013-07-29-Pinuel_Raigada_AnalisisContenido_2002_EstudiosSociolinguisticaUVigo.pdf)

Sagastizabal, Marina eta Luxán, Marta. (2016). “Generoa eta denboraren erabilera”, en Legarreta (koord.) *Bi hamarkadako gizarte-aldaketa Euskal AEn denboraren erabileraren bitartez. Denbora-aurrekontuen inkesta, 1993-2013*. Vitoria-Gasteiz: Eustat, 379-416 [http://www.eustat.eus/estad/berriak/Monografico\\_EPT\\_12\\_eus.pdf](http://www.eustat.eus/estad/berriak/Monografico_EPT_12_eus.pdf)

Sánchez, Fabio, eta Escalante, Gracia (2015). Teatro social y photovoice como herramientas de empoderamiento profesional. Ejemplo de buenas prácticas: dumpsterart project. *Revista de servicios sociales y política social*, XXXII. liburukia, 109. alea 151-162  
[https://publicaciones.unirioja.es/catalogo/online/CIFETS\\_2016/Monografia/pdf/TC262.pdf](https://publicaciones.unirioja.es/catalogo/online/CIFETS_2016/Monografia/pdf/TC262.pdf)

### Adierazle-sistemei buruzko gidak eta proposamenak

Alfama, Eva eta Cruells, Maria (2012). *Adierazle-sistema. EAEko emakumeen eta gizonen berdintasuna/Sistema de indicadores. Igualdad mujeres y hombres en la CAE*. Vitoria/Gasteiz: Emakunde  
[http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones\\_guias2/es\\_emakunde/adjuntos/guia\\_indicadores.pdf](http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_guias2/es_emakunde/adjuntos/guia_indicadores.pdf)

Caprile, Maria (koord.) (2012). *Guía práctica para la inclusión de la perspectiva de género en los contenidos de investigación*. CIREM fundazioa  
[http://www.idi.mineco.gob.es/stfls/MICINN/Ministerio/FICHEROS/UMYC/Guia\\_practica\\_genero\\_en las investigaciones.pdf](http://www.idi.mineco.gob.es/stfls/MICINN/Ministerio/FICHEROS/UMYC/Guia_practica_genero_en las investigaciones.pdf)

Carrasco, Cristina (2006) *Estadístiques sota sospita: proposta de nous indicators des de l'experiència femenina*. Bartzelona: Institut Català de les Dones  
[http://dones.gencat.cat/web/.content/o3\\_ambits/docs/publicacions\\_eineso7.pdf](http://dones.gencat.cat/web/.content/o3_ambits/docs/publicacions_eineso7.pdf)

Dávila Díaz, Mónica (2004). *Indicadores de género. Guía práctica*. Sevilla. Emakumearen Andaluziako Institutua.





<http://www.juntadeandalucia.es/institutodelamujer/ugen/sites/default/files/documentos/99.pdf>

García Calvente, Maria del Mar (2010). Guía para incorporar la perspectiva de género a la investigación en salud. *Serie Monografías EASP*, 48, alea. Granada: Andaluziako Osasun Publikoko Eskola

<http://www.umaza.edu.ar/archivos/file/GuiaInvestigacionGenero.pdf>

Likadi Información y Empleo S.L. (2006). *Guía orientativa para la introducción de la perspectiva de género en investigaciones y estudios cuantitativos y cualitativos de cualquier orden*. Tenerife: Tenerifeko Kabildoko Gazteria, Hezkuntza eta Emakume Saila. Proyecto Violeta <https://www.juntadeandalucia.es/institutodelamujer/ugen/node/1276>

## Web baliabideak

Fundació Surt. Investigación e Innovación <http://surt.org/ambits-de-treball/recerca-i-innovacio/>

Ikerketa Feministarako Metodologiari buruzko diziplinarteko mintegiaren (SIMReF) bideo-bilduma <http://www.simref.net/videos-del-simref-en-vimeo/>